



# ARGIA



MINBIZIAREN ESTIGMEI AURRE EGINEZ

## ***Bular bakarrarekin eta harro***

24-29. orriak

#2.761 | 2021 / 12 / 31 | 3,90 €



**Mexikoko Gobernuaren  
eta zapatisten  
arteko talka handia**

12 | TREN MAYA



**“Ziurgabetasuna  
onartzen irakasten  
du poesiak”**

42 | ITZIAR UGARTE



**LARRUN #269**  
**COVID pasea  
zertarako?**

# ARGIA EGUTEGIA 2022

*Egunero efemeride bat.  
Burujabe garenez, historia guk ere idatz dezagun.*



**10€**  
+4€  
bidalketa  
gastuak

40€-tik gorako  
erosketetan,  
bidalketa doan.

Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

**AURRE-SALMENTA:**  
**AZOKA.ARGIA.EUS • 943 37 15 45**

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik  
**08:00etatik 15:00etara** (beste ordutegiak aurrez kontsultatu).



## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:  
DANI BLANCO

## Iritziak

- 19 | ASIERA BLAS
- 20 | UXUE APAOLAZA
- 21 | J.IGNACIO ANSORENA
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | ROSER ESPELT

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 39 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: LUCIA PÄMPOLS
- 54 | BERANDUEGI



### 36 | EKOFEMINISMOA

Emaginek antolatutako ekofeminismoari buruzko jardunaldien laburpena ekarri du Jenofa Berhokoirigoin, zeinetan besteak beste landu zen kolapso egoera honetan nola elkartu komunitatea, desazkundera modu ordenatuan egin dadin.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL | "TREN MAYA"  
**Mexikoko gobernuaren eta herri mugimenduen arteko talka handia**

Pello Zubiria

14 | PERTSONAIA | AMAIA ELIZAGOIEN  
**"Ipuinek irakaspén bat dute, irakaspénik eman nahi gabe"**

Reyes Ilintxeta

24 | BULAR BAKARREKO EMAKUMEAK  
**Ezkutarazi nahi dietena, azalerazi**

Leire Artola Arin

30 | EUSKARA

**"Euskara munduko erreferentziak arrotz zaizkie periferiako gazteei"**

Miel A. Elustondo

33 | KIROLA | QATAR 2022

**Has dadila diktaduraren ikuskizuna**

Iñaut Gonzalez de Matauko

42 | KULTURA | ITZIAR UGARTE

**"Poesia hitzekin beste zerbait egiteko lekua dela sinesten dut"**

Peru Iparragirre

46 | KULTURA | NOA ESHKOL-EN ERAKUSKETA

**Mugimendu notazioa**

Jone Alaitz Uriarte

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Lehendakaria

Onintza Irureta

### Erredakzioa

Amalia Lekuenerri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartzandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

lamezta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

### ISSN

0213-909X

### Batzorde parekidea

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus  
harpide@argia.eus

#### Telefonia

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

Gasteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA





ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

# Bizitza ikuskizun bihurtuta

Nazioarteko atalean "hirugarren munduan" gertatu den zerbaít sartzeko, ikusgarria behar du izan. Hondamen naturalak, migrazio masiboa, muturreko pobrezia edo biolentziarekin lotutako irudi ikusgarriek dute lehentasuna. Irudirik ez bada, nekez izango da albiste edo segituan desagertuko da. Ikusgarritasunak eragiten duen momentuko harridura, hotzikara, ikara, errukia... oinarritzko sentimendu horiek salgarriagoak dira, gertatutakoaren zergatiaz hausnarketa egiteak denbora (eta dirua) gehiago behar du eta. Ikusgarritasuna eta albiste "txarrak" eskutik helduta doaz ia beti. Beraz, han eta hemen albistea zer den eta zer ez den erabakitzean elikatzen ditugun estereotipo eta klitxuez badugu zer hausnartua kazetaritza independentea egin nahi dugunok (ere). Irudian, tornadoek suntsitutako zinema bat AEBetako Kentucky-n.

 S. TRIPLETT / REUTERS  AXIER LOPEZ





# “Jaurlaritzak pandemia baliatu du Osakidetzan murrizketak egiteko”

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA / LEIRE ARTOLA ARIN

Osakidetzaren lehen mailako arretaren egoera "jasanezina" dela salatu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako osasun etxeen aurrean elkarretaratzeak egin dituzte pasa den astean. "Lehen olatua izan eta urte eta erdira, osasungintza urria, nekaturia eta baliabiderik gabea daukagu", salatu dute LAB, SATSE, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek, elkarrekin deitu dituzten mobilizazioetan.

"Pandemiak are gehiago tenkatu du lehen ere hiltzerian zegoen asistentziailaren egoera; arazoak egiturazkoak dira, egungo osasun-krisia baino askoz sakonagoak eta zaharragoak –salatu dute ohar bateratu batean sindikatuek–. Hala ere, pandemia hau, kolektiboaren lan-baldintzak eta herritarrei eskaintzen zaien asistentzia-kalitatea are gehiago prekarizatzeaz gain, Osakidetzak murrizketak aplikatzeko eta pazienteak osasun publikora iristea zailtzeko aitzakia ere bihurtu da".

Horrek guztiak, beren hitzetan, planifikazio, errefortzu eta inbertsio ezarekin eta pandemiaren kudeaketak eragindako lan-karga handitzearekin batera, "soken aurka" jarri du Lehen Mailako Arreta. "Lehen Arreta eraisteko programaturako estrategiak aurrera jarraitzen du, eta Osakidetzak COVID-19arekin egiturazko defizita estaltzen jarraitzen du", salatu dute.

Eskaera zehatzak egin dituzte: osasun sailaren aurrekontua handitzea Europar Batasunaren parera iritsi arte –BP-Garen %7; EAEn %4,78koa zen 2020an, %5,39koa 2009an–; plantillak indartzea eta giza baliabide nahikoak ematea kategorio guztietan, lanpostu berriak sortuz –1.000 plaza gehiago behar dira beren kalkuluen arabera–; behin-behineko milaka langile finko egitea eta gehiegizko aldi baterako kontratazioak amaitzea; lan kargak arrazionalizatzea eta hutsune guztiak lehen egunetik ordezkatzeta. "Azken batean, lehen mailako arreta lehenesten eta indartzen duen estrategia bat".

Salatu dutenez, Gotzone Sagardui buru duen Eusko Jaurlaritzako Osasun sailaren

planifikaziorik, errefortzurik eta inbertsiorik gabe eta pandemiaren kudeaketak eragindako lan karga handituz, "egoera larrian" dago lehen mailako arreta.

Gogoratu dute pandemiaren aurretik langileek hiru greba egun egin zituztela 2019an, inbertsio faltagatik, irisgarritasun murrizketengatik, zerbitzuen eskaintza ezagatik eta profesional eskasiagatik. "Osakidetzak, orduan, Lehen Mailako Arretako Estrategiaren dokumentu bat jarri zuen mahai gainean, nahikoa ez zela esan genuena, benetako arazoei ez zielako erantzuten". Salatu dute baliabide materialak eta profesionalak falta direla, eta batez ere, apustu egin behar dela lehen mailako arreta osasun publikora sartzeko lehen atea izan dadin.

"Pandemiaren aurretik eta bitartean konponbiderik ez egoteak agerian uzten du ez zegoela aurreikuspenik, eta ez zegoela benetako borondaterik egoera konpontzeko".

LAB sindikatuak ikastetxeetan ere deituak zituen protestak "Osakidetzako murrizketek Hezkuntza ere gaixotzen dute" leloarekin.

## "KOLEKTIBO ZAURGARRIAK EZ BAZTERTU"

Bestalde, Medicumundi Bizkaiak eskatu du ez baztertzeko kolektibo zaurgarriak osasuneko lehen arretan. Erakundeak txosten bat aurkeztu du Aldarte fundazioarekin elkarlanean, eta salatu dute osasun publikoan tratatu desberdina ematen zaiela LGBTI+ kolektiboko pertsonen zein pertsona arrazializatuei.

Medicumundi Bizkaia erakundeak eta Aldarte fundazioak aldarrikatu dute kolektibo zaurgarriek osasuneko lehen arretara sarbide parekidea eta bidezkoa izan behar dutela. Izan ere, Bilbon aurkeztutako txosten batean salatu dute osasun publikoko sistemak baztertu egiten dituela, besteak beste, LGBTI+ kolektiboko kideak eta pertsona arrazializatuak.

*El Salto* hedabideak jakinarazi duenez, bi erakundeek dokumentu batera-

tua egin dute, 2018an onartu zen lehen arretaren gaineko Astana Adierazpenari kontrajarria. Itziar Irazabal Medicumundi Bizkaiako presidentek salatu du adierazpen hori atzerakoia dela: "Astana Adierazpenarekin atzera pausoa eman dugu, zeren ez baitzaio erreferentziarik egiten LGBTI+ kolektiboari inongo puntuetan. Ez da ia inklusiboa, oso heteronormatiboa da, eurozentrismoa eta androzentrismoa".

**Eskaera zehatzak egin dituzte: osasun sailaren aurrekontua handitzea, plantillak indartzea, behin-behineko milaka langile finko egitea, lan kargak arrazionalizatzea eta ordezkapenak lehen egunetik egitea**

Bizkaiko lehen arretari buruzko ikerketa bat burutu dute, eta, ondorioztatu dutenez, lehen arretak "ahaztuta" uzten ditu, besteak beste, migratzaileak. "Gaur egun jakintzat ematen da lehen arreta unibertsala dela, baina azterketa honekin konturatu gara ez dutela sarbidea pertsona guztiak". Esaterako, Aldarte fundazioak Gaizka Villar kideak gogorarazi du Osakidetzako arreta zein sendagaiak jasotzeko beharrezkoa dela Osasun Txartel Indibiduala (OTI), eta migratzaile askok ezin dutela eskuratu, ez daudelako errolatuta.

*Ondoko orriko argazkietan, sindikatuek deituriko protestak. Irudi gehienak LABek webgunean bildu dituenak dira, gainontzekoak Twitterren erabiltzaileek igoak.* ●



## Urteko uzta



ULA IRURETAGOIENA

Zer pentsatuko luke kazetari batek, urteko azken artikulua idazteko unean. Urtearen errepasso bat egitea akaso, urteak eman duen uztarik onenaren zerrenda batekin batera, laburpen baten gisara. Liburu, zinema, diskoekin horrela egiten da. "Onenen zerrendak" egiteari kutsu estatubatuar eta lehiakorra ikusi diot beti, eta botere ariketa bortitz bat usaindu daiteke atzean, kazetaria *influencer* bilakatuta. Nor naiz ni beste profesionalen lana baloratzeko, on eta txarren artean taldekatzeko. Baina atzera begira ariketari interesa aurki diezaioket, urte batek suposatzen duen denbora sinbolikoak adierazkortasun nahikoa duela non gauden ikusarazteko.

Arkitekturaren esparruan, sari bana-keta eta blog argitalpenek gertatzen ari denaren berri ematen dute, Durangoko Azokatik buelta bat ematearen antzera. Besteek egindako aukeraketari begira, hainbat lerro intelektual nabari daitezke.

Lurraldeari dagokionez, elikaduraren garrantziak eta aldrietako ortu laborantzaren errekuperatzeak *top ten*-ean jarraitzen du. Ogi on bat ekoizteak hiri bati ekartzeko dion bizi-kalitatearen neurgailuaz hitz egin da. Pandemiak auzo eskalaren berreskurapena aldarrikatu du, oinez eta 15 bat minututan bizitzaren oinarriko ekintzak auzoan aurkitzeko beharrari eutsiz. Hirien eraldaketari dagokionez, aurtengo leloa izan da eraitsi aurretik dagoena erreparatzearen alde egitea. Baina hiria utzi eta baserrira bizitzen joateko ideiak gora jarraitzen du, Eusko Jaurlaritzak baserrietan etxe gehiago egiteko atea zabaldu ostean.

Energia berriztagarriekin batera, aireratzapen gurutzatuaren logika tradizionala gailendu da. Baina aurtengo erakuntzaren eragilerik handiena mundu mailako lehengai eskasiaren ondorioa izan da, eta horrek ekarri du eraikuntza prezioen bat-bateko igoera. material eta teknika lokalen biziberritzeak etorri behar badu, eraikuntza-artisautzaren goraldi bat eskatzerik balego, gaur-gaurkoz, sektorea ez dago prest. Etxeko lan asko datorren urtera begira! ●



## Gurasoetako batek umea txertatu nahi du, besteak ez

MIKEL GARCIA

Anak ez dio zentzurik ikusten ume osasuntsua den Lur txikia txertatzeari. Haurrek arin pasatzen dute gaixotasuna, dio; epe ertain eta luzera txertoak izan ditzakeen ondorioekin arduratuta dago; nabarmendu du birusaren transmisioan eragin txikia dutela umeek –eta irakurri du, baita ere, beste adin tarte batzuei baino test gehiago egiten ari zaizkiela seigarren olatu honetan, hortik haurren inzidentzia-tasa altua–; are gehiago, bereziki kutsatzaile balira ere, txertoak zoritxarrez ez du birusaren transmisioa mozten, dio Anak; eta jakin du Norvegiar eta Finlandiar momentuz ez dituztela 11 urtetik beherako haur osasuntsuak txertatuko.

Alexek uste du Lur txertatzea komeni dela. Helduak babesteko eta transmisioa hein batean murrizteko lagungarri izango dela; beste gaitz batzuentzako txerto ugari hartua dela aurretik umea, eta bat gehiagok ez duela inporta; segurua dela txertoa, osasun erakundeek hala ziurtatuta, eta beste txertoen esperientziak erakutsi duela epe luzera ez dutela ondorio larriak uzten txertoek; eta gainera, txerto ez hartzeak Lurri bizitza asko mugatuko diolako kezkatuta dago Alex, egun gehiagok konfinatuko luketelako haurra eta ekitaldi eta ekintza askotan parte hartzea galaraziko lioketelako.

Anak eta Alexek badakite Lurrentzat onena nahi duela bai bata bai besteak, elkar ulertzen dute eta eztabaidari errespetuz ekiteko prest daude. Ez da abiapuntu txarra, garai sutu hauetan.

### HAURRAK, BERRIZ ERE ZIGORTUAK

Beste erabaki bat errazago adostu dute Anak eta Alexek: pasa den astean, Lur ez zen eskolara joan. Ikasgelan bi kasu positibo agertzearekin gelako haur guztiak etxera bidali dituzten honetan –kasu bakarrarekin baheketa orokorra egitera ere bidali dituzte ikasle guztiak–, Gabonetako oporren atarian beldur ziren, beste hainbat gurasoren antzera: haurra ikasgelan kutsatu zitekeen, edo ikaslea kontaktu estutzat hartu eta familia osoak konfinatuta eman beharko zituen hamar egun.

Kurioski, oro har haurrek koronabirusa arin pasatzen badute ere, hain juxtu txikiak dira neurri gogorrenak jasaten dituztenak. Musukoa ez darabiltelako eta txertatuta ez daudelako, zorrotzagoa da neurria haien kasuan, eta aukera handiagoak dituzte –negatibo eman arren– konfinatuta hamar egun egiteko, ondorioz baita haiek zaindu behar dituzten senideek ere.

Hezkuntzan protokoloa aldatu du Eusko Jaurlaritzak eta baheketa handiagoa egiten da orain. Lehen Hezkuntzako gela batean bi kasu positibo badaude, gela osoak egingo du proba eta gela osoa geldituko da etxean, gutxienez probaren emaitza jakin arte. Horrek esan nahi du, nahiz eta baheketa orokortuagoak egitea albiste ona den berez, ume gehiago direla orain etxean konfinatuta daudenak. ●



# 121

urteko kartzela zigorra eskatu du Gipuzkoako Fiskaltzak Kote Cabezudorentzat. Argazkilari donostiarraren aurkako auzi nagusian 32 delitu egotzi dizkiote, sexu erasoei, haur pornografiari eta pertsonen intimitatea urratzeari lotuta.

# 12

ikasgela informatiko sortuko dituzte Amazigh herriko haurrentzat. Euskal Herrian jasotako ordenagailuei bizitza berria emango diete bertan.

Oinarrizko hezkuntzarako sarbiderik ez duten eskualdean egingo dute proiektua.



# 130

gazte elkartuko ditu Euskarabenturak 2022ko espedizioan, Euskal Herria euskara hutsean zeharkatzeko.

2005 eta 2006 urteetan jaiotako gazte euskaldunek jada hautagaitza bidaltzeko aukera dute.

*“Txerto guztiak herrialde garatuek hartu dituzte eta, ez denez txertaketa orekatua egin munduan, Afrikako eremu zaugarrienetan Omikron sortu da”*

## **AYOADE ALAKIJA**

Afrikako Batasuneko eta Afrikarako Txertoen Aliantzako presidentekidea.

**BBC (2021-12-21)**



**“BERRIRO ERE KARTZELAK BETE NAHI DITUZTE, EUSKAL HERRIA IRAGANERA KATEATUTA MANTENTZEKO”**

## **HAIMAR ALTUNA**

Sortuko kidea da Altuna. Espainiako Auzitegi Nazionalak deituta, Mikel Albisuk joan den astean deklaratu zuen eta preso ohiari babesa adierazteko elkarretaratzea egin zuen Sortuk.

**2021-12-21**

*“Oso gogorra da bizitzaren zain egon eta heriotzarekin topo egitea”*

## **AINTZANE OIARZABAL**

Unax semea galdu zuen haurdunaldian. Isilean eraman zuen dolua hasieran. Esku Hutsik elkartetik ari da egoera berdina jasan duten emakumeak laguntzen.

**AIARALDEA (2021-12-22)**



## EZ HANKA EZ BURU

**ADUR LARREA**  
www.adurlarrea.com



## HUMANITATEAREN UNE GORENAK

# Garenneko bidea



ARITZ GALARRAGA

**A**urrekoan gorri-arre deitu nion eta, ez nadin erabat injustua izan harekin: ezen bada Michel Onfray jakingarri bat, oso jakingarria izan ere; ez nago ados adinean eta, batez ere, egoan gora egin ahala degradatzen diren horien ibilbide gutzia kantzelatzearekin. Hala, estimutan ditud oraindik Onfrayren hainbat lan, luze gabe *Politique du rebelle*, zeinak jarraitzen duen izaten, eta jarraituko, erreferente bat. Haren harian, gainera, badu liburutxo bat, orain gutxiokoa, 2019; degradazioa abian zenekoa, hortaz. *Le chemin de la Garenne* izena du, eta, hazi zen herrian zeharreko itzuli baten aitzakian, ari da memoriaz, iraganaz, haurtzaroz, denborak eragiten duen higatzeaz.

Hasteko dio ez dagoela inora ez daraman biderik –Miguel Sanchez-Ostizek gehituko luke besterik dela zuk ba ote dakizun bide horrek nora daraman–. Hain zuzen, bide batek behar du nora joan hori, eta Garenneko bide honek, justuki, denboran atzera garamatza: iragaten da gurasoena izan zen etxetik, iragaten da ezagun andana hartzen duen hilerritik –non ehortzia izan nahiko lukeen egileak, bide batez–, iragaten da aita hil zitzaion, besoetan hil ere, parajetik. Langile baratzeak desagertu dira, haietako bat aitarena, zeinaren ordena eta diziplinagatik, izan zen Onfray haurrak jaso zuen filosofia eta jakinduria lezio lehenetarik. Gasnategia desagertu da, zeinean Onfray gaztetxo batek lan egin zuen denboraldi batez –“Fabrikak itxi zuenean, isiltasuna instalatu zen herrian–. Eta desagertu da bere esnatze intelektuala ekarri zuen eraikin bat, zeinean ikasi zuen irakurtzen, idazten, zenbatzen, eskola. Zer oroitzapen gorde behar da oroitzapen guztietatik? “Nigan den Garenneko bidea ez dago hilik, eta hori da inporta duena”.

Ez dago inora ez daraman biderik, beraz. Bideak nora daraman jakin beharra dago bakarrik, edo deskubritzera ausartu. ●

## Hegazti gripea

Nafarroa Beherean, Akamarreko etxalde batean H58N atzeman dute bertako ahateetan. Etxaldeko ahate guztiak hil dituzte eta gripea zabaldu daitekeen beldur, Akamarretik 10 kilometroko eremuan neurriak hartu ditu Pirinio Atlantikoetako Departamenduko prefeturak: hamasei udalerriri eragiten die.

## Lan erreforma

Espainiako Gobernuak lan erreforma hitzartu du, baina PPrena indargabetu gabe. Patronalarekin eta CCOO eta UGT sindikatuekin akordioa lortu du Gobernuak. Europar Batasunak eskatu bezala, neurriak adostu dituzte behin-behinekotasuna murrizteko, baina enpresek segiko dute langileak kaleratzeko erraztasuna izaten.

## Irregulartasunak

Autoa partekatze kooperatoria garatzen ari da Bizi mugimendua Ipar Euskal Herrian. Autoa noizbehinka alokatzeko aukera ematen du partekatze honek eta erabiltzaile libratzen du mantenuaz, aseguruaz, aparkalekuaz eta abarrez. Interesa dutenekin harremana egiteko modua zabaldu du.

## TEKNOLOGIA

## Digitalizazioan eragiteko, harremanetan sakondu



DIANA FRANCO

**B**izi dugun planeta hau harremanez josita dago. Lynn Margulis eta James Lovelock biologoek ideia horren inguruan Gaia-ren hipotesia argitaratu zuten 1969an. Lynn Margulisek bizitzan pentsatzen zuenean testuinguru batean pentsatu ez ezik, "jatorrizko salda" batean pentsatu ez ezik, aukeraketak egiten dituen material pentsatzen zuen. Ideia guztiz iraultzailea, hortik baitator gero-rago sortu zuen sinbiogenesiaren teoria, hau da, izakien arteko harreman fisikoak, egokitzapenak, garena izateko. Margulisen hitzetan izaki bizidun guztiok sinbionteak gara, biotrukaketen bidez eraikitako bizigaiak.

Biotrukaketa harreman horiek egiteko moduak historikoki eragiten gabiltza gizakiak, teknologiararen bidez. Ez du zertan jokabide txarra izan, baina harremanetan bitarteko hegemonikoa bilakatzen ari den digitalizazioaren inguruan gure buruei galderak egiteko interesgarria da oso. Historikoki gizakiok naturarekiko izan dugun harremana oso ondo jasotzen du Mikel Laboaren *Izarraren Hautsa* abestiak: "... ingurune latz bat menperatzeko premia...". Eta jarrera horri ematen dizkiogu indarrak, bidean, naturarekiko eta bere "karga biologikoarekiko" geruzak eta geruzak sortuz.

Eraldaketa digitalarekin pixkanaka berdina egiten gabiltza, baina sortzen ditugun geruzek ez gaituzte soilik naturarekiko eta beste izakiekiko fisikoki urruntzen, beste pertsona batzuegandik, askotan gertukoak, aldentzeko joera dakarte.

Bestalde, pertsona askorentzat "ingurune latza" menperatzeak gainontzeko gizakiak dominatzeak botere harremanak eraikitzea esan nahi du, eta eraldaketa digitalak horretarako aukera ematen du. Sinbionteak garelako ahaztu barik, zein eragin izango du horrek bizitzaren garapenaren baitan? Teknologia eta digitalizazioa bera sinbiogenesiaren parte bihurtuko dira?

Zorionez Euskal Herrian eragile asko dago gai hauen inguruan hausnartzen eta dugun digitalizazioak sor ditzakeen botere harremanak aurreikusten, eraldaketa digitalean eragiteko modua baita. ●

## NAZIOARTEA



Kamala Harris eta Guatemalako Presidente Alejandro Giammattei. AP - J. Martin

## Migrazioari aurre egiteko: Pepsi, Microsoft eta Mastercard

AXIER LOPEZ

**A**EBetako presidenteorde Kamala Harrisek hilaren 12an iragarri du "legez kanpoko migrazio masiboari" aurre egiteko plan berria. 1.200 milioi dolar inbertituko dituzte Erdialdeko Amerikan, batez ere Guatemalan, Hondurasen eta El Salvadorren. Diruaren herena baino gehiago inbertsio pribatua izango da, PepsiCo, Microsoft, Nespresso, Cargill eta Mastercard enpresen eskutik, besteak beste. Helburua da "zonaldean egoera ekonomikoa hobetzea eta enplegua sortzea sektore pribatuarekiko lan-kidetzaren bidez". Eta horrela, Joe Bidenekin batera boterera iritsi zenetik Harris behin eta berriz errepikatzen ari den esaldia erakargarriagoa egitea: "Do not come". Migratzaileak, ez etorri AEBetara.

Harrisen arabera, Erdialdeko Amerika bizigarriagoa egin nahi dute, indarkeria, ustelkeria eta pobrezia murriztuz. Azken hiru hamarkadetan-gutxienez- zonaldean eragiteko AEBek abiatu dituzten "plan solidario" guztien ohiko helburu onberak. Milaka milioi dolarreko plan handiustekoak, baina oso emaitza urriak izan dituztenak. Eta esan beharrik ere ez dago diru mugimendu hori sarri amaitu dela oso esku gutxitan, eta gehienak ustelak.

Bere kapsulekin mundua aluminioko zaborra bete duen Nestle

taldeko Nespresso enpresak bere enpresarentzako kafe-hornidura zabaltzeko konpromisoa hartu du hiru herrialdeetan. PepsiCo, munduko elikagai eta edarien ekoizle nagusieta-koaren kasuan, 190 milioi dolar iragarri ditu Guatemalan bere azpiegiturak eta fabrikazio-gaitasunak hobetzeko, bere banaketa-bideen hedapena barne. Cargillek, soja herri indigenen aurkako indarkeriatatik edo Malaysiak, Indonesiak edo Boli Kostako landaketetan esklabotzaz eta haurrak lanean izateaz salatutako multinazional erraldoiak ere 150 milioi erabiliko ei ditu "Honduras, Guatemala eta El Salvadorko 19.000 nekazariri laguntzeko". MasterCard asmoa da 5 milioi pertsona inguru "ekonomia digitalera eramatea". Microsoftek hitz handitan iragarri du berari esker "milioi bat erabiltzaile baino gehiagori eskaini diotela Interneterako sarbidea Hondurasen, komunitate indigenak barne".

Sistema ekonomikoa ankerraren aterpean jaio eta hazitako multinazionalen sistema horren beraren biktimak salbatuko dituzte. Gizatasunagatik eta uko eginez beren helburu nagusi bakarrari: gero eta diru gehiago lortu eta metatzea. Kapitalismo gizatiarraren ipuinarenak ez du egin, oraino. ●

# HEMEN DATOR 'TREN MAYA', MEXIKOKO GOBERNUAREN ETA HERRI MUGIMENDUEN ARTEKO TALKA HANDIA DAKARRELA

1934tik 1940ra Lazaro Cardenas jeneralak mugarriztat utzi dituen moduan nekazaritzaren erreforma, petrolioaren nazionalizazioa eta trenbide sarea, Andres Manuel Lopez Obradorrek erabakita dauka hiru monumentu gotor uztea Mexikoko historian iltzatuta, tartean, Tren Maya famatua. Latino Amerikako ezkerren itxaropen handitzat aurkeztu zen Lopez Obrador edozer egiteko prest dago trenbide berria amaierara eramateko.

## PELLO ZUBIRIA KAMINO

**H**iru proiektu erraldoi burutu nahi ditu Andres Manuel Lopez Obradorrek –AMLO deitzen diote denek– historiak oroitu dezan. Bat, Mexiko hiriburuaren eta munduaren arteko hegazkin konexioak hobetuko dituen aireportu berria Zumpango herrian; Enrique Peña Nieto saiatu zena Texcocon egiten –eta ustelkeria eta ingurumen arazoengatik bertan behera utzi behar izan zuena– AMLOk lortuko luke boro-biltzea. Bi, energia burujabetasuna lortzeko, petrolio birfindegi berria eraikiko da Tabasco estatuan, eta jada martxan diren beste sei handienak zaharberrituko dira. Mexikarrek gaur darabilten erregaiaren %80 inportatua da.

*Tren Maya* da AMLOren hirugarren proiektu izarra, ziurrenik 2022an zalaparta handienak eragingo dituena: 1.523 kilometroko trenbide berria, Tabasco, Chiapas, Campeche, Yucatán eta Quintana Roo estatuak zeharkatuko dituena. 2024an inauguratu asmo duten trenak garraiatu behar ditu lekuko bidaiariak, zamak eta turistak. 150.000 milioi peso (6.387 milioi euro) kosta beharko zuen hasiera batean, baina jada joan den urrian, 200.000 milioitara (8.518 milioi euro) igoa zuen kalkulua. 2024a arte puztuz joango dira zenbakiak, ondo bidean. Estatuak osorik finantziatuko du, behingoagatik partaidetza publiko-pribatuaren eredua baztertuta.

*Tren Maya* proiektuak pertsonalitate eta erakunde askoren kritikak jaso ditu hasieratik, ingurumenezko eta kulturazko kalte handiak eragingo dizkielakoan bertako biztanleei. Salaketen indarra ikusita, AMLOk parte hartze prozesu bat jarri zuen abian 2019an. Fondo Nacional de Fomento al Turismo (Fonatur) erakundeak bideratu zuen kontsulta, ez alferrik, trenaren plangintza osoa sustatzen duena baita. Tzeltal, Tsztzil eta Chol mintzo diren maia jendeekin 30 batzar egin zituzten 112 udalerritan zehar... eta aurrera trena.

EZLN Askapen Nazionalerako Armada Zapatistak hasieratik esan du ahal duen indar guztiz egingo diola kontra trenbide berriari. 2020ko urtarrilean, matxinada zapatistaren 26. urteurrenako ekitaldian, Moises azpi-komandanteak adierazi zuen Lopez Obrador lehendakariak –“orain Mexiko deitzen den etxaldean agintzen duen kapatazak”– antolatutako herri kontsulta antzerki hutsa izan zela, simulakroan indigenaz beztitutako pertsonak jartzearekin, “Ama Lurrari galdetu balio bezala bera bortxatzeko baimena”. Moisesek ohartarazi zuen EZLNko kideek beren bizia ere emango dutela lurraren eta herritarren zampaketa berria gelditzeko.

AMLOk hitz gozoz erantzun zien zapatistei, EZLNk ez duela ondo aztertu *Tren Maya*-ri buruzko informazio guztia, eta indigenei kalterik ez, baina onura handiak ekarriko dizkiela: “Ez bezate espero

gure arerioek, ezkerrekoek bezala eskuinteok, guk agintekeriaz jokatzea. Gu bakezaleak gara”. Baina modu bitxian mamituko zuen mezu bakezale hori egun gutxiren buruan.

## NIK DIOT TAPIA, ZUK DIOZU AMLO

Azaroan AMLOk lege berri batez “segurtasun nazionalekotzat” deklaratu zituen azpiegiturazko obra handiak: gobernu zentralak lehentasunezko edo estrategikotzat jotako garapen proiektuen aurrean, beste edozein administraziok bost eguneko epea edukiko du bere eremuan aplikatu baino lehen edozein erreklamazio egiteko. Bost egunen ostean, proiektuak behin-behineko baimen osoa edukiko du hamabi hilabetetarako eta ondoren behin betikoa.

Interes nazionalekoen atalean sar daiteke edozein azpiegitura baldin badago kio atal hauetakoren bati: komunikazio eta telekomunikazioak, mugak, uraren kudeaketa, ingurumena, turismoa, osasuna, trenbideak, energia, aireportuak... Jada Mexikon ez eskualdeko gobernu autonomo batek edo ez inolako udalek ezin dio funtsezko eragozpenik jarri bere eremuan gobernuak urratu nahiko duen ezein azpiegiturari. Iñigo Urkulluk eta Arantxa Tapiak Euskal Autonomia Erki-degoan udazken honetan egin duten lege aldaketaren antzekoa, esan badaiteke.

Obra erraldoiak legez blindatzea da AMLOren estratiagiaren bi adarretako



### AMLO MILITARREKIN

'Tren Maya'-ren obrak ikuskatzen. Trenbide berriaren kudeaketaren zati bat Armadaren enpresa bati esleitu dio Andres Lopez Obradorrek. Argazkia: Mexikoko Gobernua.

bat. Bestea ilunagoa da eta "kontrain-surjentzia" deitzen da. Gobernua horretan ari da aspalditik. *Proceso* aldizkariak zabaldu duenez, *Tren Maya* sustatzen duen Fonatur aritu da proiektuaren arerioei buruzko "inteligentzia estrategikoa" biltzen, trenbidea eraikitzeko lanen segurtasuna bermatzeko. Arrisku taldeetat dauzka izendatuak berdin droga eta gizakien trafikoan ari diren talde kriminalak baita EZLN eta Mexikoko herri mugimendu askoren bilgune den CNI Congreso Nacional Indigena ere. Ikerlariak jarraipena egin diete lekuko hedabideei, lider eta mugimendu sozialei, sindikatuei, baserritarren elkartei eta abar luze bati ere.

Analisitik askoz urrunago doa jadanik, ordea, Mexikoko kontrain-surjentzia,

Raul Zibechik *Guerra de desgaste contra las comunidades zapatistas* ("Komunitate zapatistak akitzeko gerra") testuan azaldu duenez. Zibechik elkartasun talde batekin egindako bidaian Chiapaseko komunitateetako biztanleei entzun die behin eta berriro: "Geure lurtean hesiturik gauzate". 1994ko matxinadan zapatistek berreskuratutako etxalde eta eremu askotan azken urteotan bidalitako bizi dira, agintariak harantz bidalitako lurjabe txikiek eta kafe ekoizle handien eraso pean, gobernu federalak inguruetan kokatu dituen base militar berrien babesarekin. Zientoka erasotzaile armatu etxeak erre eta uztak suntsitzen, komunitate zapatistek beren produktua merkaturatzeko egiturak eraisten, gaueko tiroketak kalibre handiko fusilez

eginak, herritarren bahiketak, jipoiak, mehatxuak...

"Kontrainsurgentzia berriak dira -dio Zibechik- EZLNren sendotzea eta lurraldez zabaltzea oztopatzeko. Zapatistak zabaldu egin baitira, gaur erresistentziako 43 gunetan daude. ORCAO erakundeko kafegileek erasora bidalitako gizon armatuak jende politizatuak dira, mugimendu zapatista ondo ezagutzen dutenak. (...) Beren *modus operandi*-a da familia eta komunitate zapatisten etxebizitzak, klinikak eta eskolak hesitzea, ekoizten jarraitzea eragozteko. Horrela osatu dute higadurazko gerra integral bat ekonomia, hezkuntza, osasungintza eta antolakuntza autonomoak hautsi nahi dituen". Itxura txarra. Zerbait gogorra gerta daiteke Chiapasen 2022ean. ●

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f w

# Amaia Elizagoien

AMELI, IPUINEN JOSTUNE



## IPUINEK IRAKASPEN BAT EMATEN DIZUTE, IRAKASPENIK EMATEKO DESIORIK GABE



Tradizio zaharreko ipuinak, kanpotik ekarritakoak eta han eta hemen entzun eta irakurritakoak dira batez ere Amaia Elizagoien Ameli baztandar gazteak egungo errealitateari josten dizkionak, hitzez eta musikaz.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

### **Nondik heldu zaizu istorioak kontatzeko zaletasuna?**

Euskara eta euskal kulturarekiko dudan atxikimendua, hein handi batean aitak eta herriak eman didatela uste dut. Gogoratzen dut aitak askotan mahaia biltzeko bertsoan eskatzen zigula eta ahizpak belarriak tapatzen zituela: "Aski da, bertso gehiagorik ez!", esanez bezala. Bestalde, ipuinen kultura amarena ere badela erranen nuke, berak ipuin aunitz irakurtzen zizkidalako txikia nintzela.

### **Umetan bertso eskolako txikiena zinen, ezta?**

Bai. Oroitzen naiz bertso eskolako mas-kota deitzen zidatela. Estitxu Aroze-nak askotan gogorarazten dit lehenen-

go egunean lagunak kantuan hasi eta une batean erran niola haserre: "Baina ni zertara etorri naiz hona, lorontzi bat izatera? Nik ere kantatu nahi dut!". Beti eduki dut desio hori, jakiteko zer sentitzen den publikoaren aurrean jartzean.

### **Noiz eta nola hasi zinen ipuinak kontatzen?**

Duela sei urte modu profesionalean hasi nintzen. Ofizio hau aunitz maite dut. Pribilegio bat da kontalaritzaz bizi ahal izatea Euskal Herrian.

Txikitan eta nerabezaroan kazetaria izan nahi nuen, komunikazioa oso garrantzitsua delako niretzat. Gero, aldiz, erizaina izan nahi nuela pentsatu nuen, pazienteekin egon eta alaitasuna eta

maitasuna ematea arras ederra izanen zelakoan. Ni oso maitekorra naiz, horretarako lekua dagoen espazioetan; euskaldunok orokorrean harremanerako era hotzagoa dugula erranen nuke. Bizitzak, ordea, Haur Hezkuntzako gradua ikastera eraman ninduen eta orduan ohartu nintzen zenbat gustatzen zaidan irakaskuntza. Ipuin kontalaritza ikasgai bezala genuen eta hor hasi nintzen honetan sakontzen.

### **Kazetari gisa ere aritu zara Xaloa telebistan. Zer nolako esperientzia izan da?**

Uste dut komunikazioarekiko badudala lotura berezi bat eta betidanik entzule ona izan naizela. Ikaragarri gustatzen



# Amaia Elizagoien Varela

ORONOZ-MUGAIRI, 1994



Bertsolaria izan da gaztetatik eta ipuin-kontalari profesionala duela sei urtetik. Txikitatik ahozko transmisioarekin harreman estua izan du. Amak ipuinen mundua erakutsi zion. Aita Bittor Elizagoien du, bi aldiz Nafarroako txapelduna izandako bertsolaria eta ipuin eta istorio zaharren zalea. Haur Hezkuntzako goi maila eta gradua ikasi zituen.

“Ameli, ipuinen jostune” da bere izen artistikoa eta azkenaldi honetan ipuin kontaketa musikatuak egiten ditu Irati Celestino musikariak lagunduta.

Baztan-Bidasoa Turismo Elkar-teak plazaratutako *Oihanean sentitu*. *Bideak bertze ipuin* liburuko narrazioen egilea da.

zait galderak egitea, emaniko erantzunek mundua begiratzeko bertzelako modu batzuk erakusten dizkizutelako.

## Zer da lortu nahi duzuna?

Kontalari bezala nire helburua beti izan da gure antzinakoek egin duten lana transmititzea, baina gaur egungo gizartera egokituz.

Kontalariaren figura zubiarena da. Ondarearen eta publikoaren arteko zubi-lana egitea da gure zeregina.

## Zer du berezia euskal kulturak?

Uste dut baduela minetik, konpromisotik eta nostalgiatik ere bai. Halako elementu elkarketa oso interesgarria egiten zait. Euskaldunok oso espiritualak ez izan arren, badugu naturarekiko harreman berezi eta estua, aunitz gustatzen zaidana.

Orokorrean pentsatzen da euskal kultura oso klasikoa dela, baina nik uste dut hori baino askoz gehiago dela, eta hau tinko sinetsi behar dugula kulturaren sorkuntza eta kontsumoa sustatu nahi baditugu.

Euskal kulturaren bertze ezaugarrietako bat izan da ahoz-kotasunaren indarra eta honek sortzen duen kolektibitatearen ideia. Individualismorantz goazen mundu globalizatu honetan, kolektibitate horren arrastoa indartsu mantentzen da oraindik ere gure artean. Hori garbiago ikusten dut, adibidez, hemendik kanpo nabilenean. Gazteen artean ez daukate arazo sozialez hitz egiteko edota kolektiboki lan egiteko ohitura handirik. Eta hori badugu hemen, ez nahi genukeen bezainbeste akaso, baina badugu eta iraurarazi behar dugu.

## Eta euskara?

Euskara ezinbertzekoa da. Ni euskaraz bizi naiz eta badakit pribilegiatua naitzela, baina iruditzen zait, aldi berean, pribilegio hori neurri batean norberak ere sortu egin dezakeela. Euskaraz egitea hauta dezakegun zerbait dela. Alde horretatik lanketa bat egin behar dugu eta ikusi guk mundua euskaraz habitatzea ezinbertzekoa dela, bertze batzuk etorkizunean hori bera egiteko aukera izan dezaten. Kezkatzeko

modukoa da, nire ustez, hizkuntza transmititzen ari garela ikusteak, baina akaso hizkuntzarekiko atxikimendua ez, eta euskarak hori gabe ez dauka zentzurik. Praktikotasunari bakarrik begiratzen badiogu, akabo.

## Zeintzuk dira zure inspirazio iturriak?

Aunitz. Hasteko gure kondaira zaharrrak. Xaloa Telebistan elkarrizketak egiten nabilenean adineko jendeari galdetzen nion kondairen inguruan, eta irakurri ditut han eta hemen bilduta dauden istorio piloak, hor baitugu altxor oso interesgarria. Honetaz gain, haur literaturan sorturiko ipuinak eta beste kultura batzuetakoak ere hartzen ditut: Txina, Hego Amerika edo kultura arabiarretik, besteak beste. Kanpoko istorio bat gustatzen bazait egiten dudana da moldatu eta gurera ekarri. Modu honetara haurren Euskal Herriko imajinarioa aberasten saiatzen naiz. Istorio bat gertatuko da Ligiko herrian, bertze bat Cintruenigon eta bertze bat Lekeition, adibidez.



## Eta zuk ipuinik asmatzen duzu?

**Itzalean gelditu diren ideiak, pertsonak eta istorio horiek guztiak josi nahi ditugu egungo errealitatera. Publikoarekin lotura hori egin nahi dugu”**

Egiten dut, baina gero eta gutxiago sinesten dut originaltasunean. Uste dut obra on bat birziklapen on bat dela, denetatik sortu baita mundu honetan. Ez naiz horrekin temetzen. Aunitzetan itsu-itsuan joaten gara berriaren bila, atzera begiratu eta hor zer dagoen ikusi eta ikasi gabe.

Ipuinek badute ezaugarri berezi bat, eta hori da iraunkortasuna. Errementariaren istorioak, adibidez, 6.000 urte baino gehiago ditu. Ezagutzen den ipuin zaharrenetarikoa bat da, Brontze Arokoa erratan dutenez. Oso garrantzitsua iruditzen zait guk hori kontatzen segitzea gero bertze batzuk ere konta dezaten.

Ipuinek badute indar bat akaso hitzez baino gehiago intuizioz uler dezakeguna. Irakaspen bat ematen dizute irakaspenik emateko desiorik gabe, eta hori da haien indarra. Azkenean, ipuinaren bidez esperientzia kolektibo bat bizitzen duzu eta horrek modu batean edo bertzean ukitzen ahal zaitu. Batzuetan oso modu leunean pa-



sako da eta bertzeetan piztu egingen zaitu eta zuk ere hori kontatzeko beharra sentituko duzu. Hau arras primarioa da, komunikatzeko beharra, alegia. Ni ukitzen nauten istorioak hartu, nire egin eta gero transmititu nahi ditut. Hori da nire lana eta hori lortu ahal izateko bertzeen artea kontsumitzea ezinbertzekoa da. Askotan iruditzen zait gauzak sortu nahi ditugula bertze sortzaileek sortu dutena kontsumitu edo ezagutu gabe.

### **Ipuin kontalari gehienak emakumezkoak zarete. Zergatik?**

Nik uste dut oso lotuta dagoela bi gauzekin: hasteko, Euskal Herrian kultura eta bertze hainbertze gauza, hizkuntza adibidez, bizirik daude hein handi batean emakumeei esker. Batetik, emakumeak eduki du zaintzarako joera oso indartsua eta kulturaren transmisioa ere zaindu egin du. Bertze alde batetik, gaur egun ipuin kontaketa itzaleko ofizio bat da, izan ere, jendeari askotan gogorarazi egin behar diot ni honetaz bizi naizela, nire ofizioa dela. Publiko gutxirekin aritzen zara beti eta akaso gizonak joera handiagoa dute prestigio gehiago daukaten ofizioetarako.

### **Hurrei lotarakoan grabatutako ipuinak jartzea zer iruditzen zaizu?**

Ez da idealena, baina ulertzen dut gurasoak nekatuta egotea eta nahiago dut entzuteko ipuin bat jartzea bideo bat baino, pantailako argiak ez diolako haurrari batera laguntzen lotarakoan. Honekin batera, oso garbi eduki behar dugu zer jartzen diogun haurrari, ea ipuin bat den, ea baloreen inguruko mezu bat den... oso garrantzitsua da, haurrari jarriko dioguna aurretik ikustea.

### **Ipuinek beti izan behar dute didaktikoak?**

Ez. Inondik inora ere ez. Beti edukiko du balio didaktikoren bat. Hizkuntzaren aldetik, adibidez, beti balioko digute haurraren hiztegia aberasteko, baina badira ere ipuin absurdoak, irakaspenik gabek edota jolasteko balio duten liburuak, aho korapiloak jasotzen dituztenak bezala.

Euskal kolektibotik lan handia egin behar dugu material ona, hezigarria eta erakargarria sortzeko. Gaur egun badago, baina gehiago behar dugu sortu. Kanpoko gauzei ere ez gara itxi behar, jakina, baina kontsumitzeko modu kontzienteago bat landu behar dugu. Hautu kontzienteak egin eta ez zaitzala olatuak eraman.



### **Nolakoak dira ikastetxeetan nerabeekin egiten dituzun saioak?**

Aunitz maite dut institutueta ipuinak kontatzea. Lehenbizi azaltzen diet zergatik hautatu ditudan kontaktu beharreko istorio horiek. Kasu aunitzetan gogorak dira, gordinak, eta interesgarriak, munduaren eta errealitatearen parte direlako. Batzuk oinarri autobiografikoa dute eta azaltzen diet ahalegin handi bat egin dudala iraganera joateko eta ikusteko zer zalantza existentzial nituen garai hartan. Dibertigarria eta hunkigarria suertatzen da denok antzeko beldur eta pozak ditugula ikustea.

### **Eta helduei zer kontatzen diezu?**

Hiru obra ditugu orain: *Gutunak*, heriotzen inguruan jaso ditudan ipuinen moldaketa, *Munduko emakumeak* eta hirugarrena Lourdes Iriondoren inguruan sortutakoa. Azken honekin gure helburua zen artista handi hura ezagutzera ematea. Gure belaunaldiak Xabier Lete eta Mikel Laboa ezagutzen ditu baina Lourdes Iriondo ez, eta bakarrik hamasei urte pasa dira hil zenetik. Euskal Herriko Joan Baez deitzen zioten, baina, hala ere, ikusezin bihurtu dute, beste emakume asko bezala. Bere obra oso lotua dago euskalduntasunarekin eta

ezagutu nuenean mina eta ezagutzera emateko beharra sentitu nuen.

### **Irati Celestino musikari lagunarekin nola hasi zinen?**

Duela lau urte ezagutu genuen elkar. Olaia Intziarte Oronozko kantautorea-rekin aritzen nintzen garai hartan eta nik hartu nuen profesionala izateko bidea, baina bera, alde batetik, oso gaztea zen eta, bestetik, bertze amets batzuk zituen. Lagun batek hitz egin zidan Irati Celestinoz. Bistaz ezagutzen nuen eta nahiz eta oso desberdinak izan, solaserako gelditu ginen eta proiektua kontatu nionean emozio-natu egin zen inor ez bezala. Intuizio handiko pertsona naiz eta berehala ikusi nuen ongi aterako zela.

### **Josi nahi dituzuen zirrikituak zeintzuk dira?**

Itzalean gelditu diren ideiak, pertsonak eta istorio horiek guztiak josi nahi ditugu egungo errealitatera. Publikoarekin lotura hori egin nahi dugu.

### **Bartzelonan ari zara antzerkigintza ikasten. Zer moduz?**

Oso ongi. Escuela laboratorio izeneko eskolan nago. Txilen du sorrera eta artea ulertzeko modu oso berezi bat dute, aunitz gustatzen zaidana. Ipuin kontalaritza eta antzerkigintza oso desberdinak dira nire ustez, baina oso interesgarria da beste genero batzuetatik ere ikastea. Gainera, gero eta garbiago ikusten dut zer garrantzitsua den hemendik eta gure konfort espazio hone-tatik ateratzea. Euskal Herriak batzue-tan irensten zaitu. Baztan, adibidez, izugarri gustatzen zait, baina tarteka oso itogarria suertatzen zait. Hemen

denok ezagutzen dugu elkar eta nire ofizioagatik pertsonaia publikoa naiz, nolabait, eta aunitz gustatzen zait bertze Amaia bat sortzea hemendik kanpo edo zerotik berriz abiatzea bertze espazio batean.

### **Etorkizunari begira zer duzu buruan?**

Nire ametsetako bat da Koldo Amestoy-rekin ikastea. Erreferente oso berezia da. Eta ohartu naiz idaztea ere izugarri gustatzen zaidala. Hemengo Turismo bulegoarekin ipuin liburu bat egin dugu eta pila bat ikasi dut prozesuarekin. Orain proiektu horretan zegoen ilustratzailearekin, Juan Angel Perotxenarekin, bertze proiektu batzuk ditut ipuin ilustratuak egiteko. Ikasten eta sortzen segitzeko asmoa dut.

### **Bertsolaritzara itzultzeko asmorik bai?**

Oholtzan oso ongi pasatzen nuen eta lagunek erraten zidaten bertara igotzean handitu egiten nintzela; hala ere, garbi ikusi nuen behar duen denborarik eskaini ezean, ez nuela disfrutatzen. Gustatuko litzaidake etorkizunean tarte bat izatea bertso eskolara joateko, bertso eskola eta bertso familia baita bertsolaritzak duen gauza politenetako bat.

### **Nola ikusten duzu egungo bertsolaritza?**

Faltan botatzen dut antzerkitik zeozer egotea, hau da: gai bat jartzen denean, eta ez zaionean bertsolariari zehazten zer posizio hartu behar duen, normalean ez dira bestela pentsatzen duten pertsonen larruan jartzen.

Txapelketetan, bereziki, libreki kantatzeko tarte handirik ez dagoenez, dau-

den apur horiek aprobe txatu nahi dituzu zure iritzia emateko. Interesgarria litza-kete gurekin ez datozen rolak hartzea, horrek sortuko lituzkeelako, ez agian txalo askorik, baina bai, ordea, hausnar-keta oso interesgarriak saioaren ondo-ren, bertsolariak hausnartzeko gaitasun handia baitu. Eta nik uste dut horren falta dugula. Preziosismora joateko joe-ra handia dugu.

### **Zer iruditu zaizu aurtengo Nafarroako txapelketako emaitza?**

Maila handiko txapelketa izan da. Finala ere bai, baina nik uste dut ez dela Nafarroako bertsolaritzaren errealitatearen isla izan. Emakume bakarra iritsi da eta aunitz dira maila handia izanda, kanpoan gelditu direnak. Bertzalde, gazte aunitz kantatzeko gogoz daudela eta horietako aunitz zonalde ez horren euskaldunetatik ere plazara ateratzen ari direla ikustea pozgarria da. Hemendik aitzina ziur naiz finalak askoz anitzagoak izanen direla, aberatsagoak eta diskurtsoak ere poliki-poliki zabaltzen joanen direla. Saioa Alkaizak saio borobila egin zuen eta erabat merezita eraman zuen txapela etxera.

Ederra izan da ikustea guraso erdal-dunen alaba denak eta errealitate hau bazterretik bizi izan duenak nola kanta-tu duen hau guztia lehen pertsonan. Zoragarria eta motibagarria izan da jende gehiagok bertsoen eta euskararen alde egin dezan. Konstantzia erakutsi zuen, urratsez urrats, lan gogorra eginez txapela lortu arte. Horregatik Saioaz harro. Txapel honek emakume gehiago ekarriko ditu hurrengo urteetako finalerara eta, aldi berean, ahalduntze saio ederra izan da bazterrean bizi diren pertsona guztientzat. ●

**Tinko**  
euskara elkartea

**2021/2022 ikasturteko programazioa ikastetxeentzat**

Filmen eskaera egiteko:  
**tinkoeuskara.eus 943 310 036**



## Itxaropenak beldurrari irabazi dio Txilen

**G**abriel Boric-ek, Apruebo Dignidad koalizioko hautagaiak (besteak beste, Frente Amplio eta Alderdi Komunista batzen dituen formula), hauteskunde presidentzialak irabazi ditu Txilen. 2021eko hauteskundeetan Latinoamerikako olatu ezkertiarra batu dira Peru, Honduras eta Txile, hirurak Limako Taldeko fundatzaileak, AEBen herrialde menpekoen aliantza Amerikan.

2022an Limako Taldeak erabat hondoratuta buka dezake Kolonbiako eta Brasilgo hauteskunde presidentzialetan ezkerre boterera iristen bada. Bi hauek izan dira Latinoamerikako herrialde handien artean olatu aurrerakoi berriari ihes egiteko modua izan duten bakarrak. Gustavo Petrok Kolonbian eta Lulak Brasilen garaipena lortzen badute, Latinoamerikako mapa gorria izango da herrialde txiki bakan batzuetan izan ezik.

Aurreko olatuak bezala, berri honek tokiko ezkerreko adierazpen propio ezberdinak ditu; baina denek ostertz moduan jartzen dute soberania indartzea, konbergentzia soziala sustatzea eta Latinoamerikako elkarlan esparrua bultzatzea. Halere, desberdintasun handiak daude orain hogeitau urte garatzen hasi zen olatu aurrerakoiarekin: nazioarteko testuinguru ekonomikoa txarra da eta lehenengo olatuan ezkerre nagusitu zen herrialdeetan eskuinekin ziklo progresista desprestigiatu dute eta etorkizunean beste bat errepikatze oztupo diren aingura ugari jarri dituzte.

Politika autoritarioak eta neoliberalak atzean uzteko joko-arau berriak behar dira eta, zalantzarik gabe, Boric da prozesu konstituziogilea lagunduko duen Presidentea

Esperientzia berrien artean aldiz ilusioa da nagusi, frustrazioa oraindik agertu ez delako. Gainera, herrialde hauetan neoliberalismoaren hegemonia erabatekoa denez, indar aurrerakoiaren artean adostasun zabala dago eskubide zibilen defentsan eta politika sozioekonomikoetan eman beharreko lehenengo pausoetan. Oinarritzko neurri askok gehiengoaren bizi baldintzak hobetuko ditu pitzadura garrantzitsurik sortu gabe aliantza progresistetan.

Honen adibidea da Txile; hauteskunde presidentzialean ez zegoen jokoan erregimenaren eredia aldatzea, aukera hori 2019ko mobilizazio masiboek ireki zuten Pinocheten garaiko konstituzioa aldatzeko konbentzio konstituziogilea lortuz. Politika autoritarioak eta neoliberalak atzean uzteko joko-arau berriak behar dira eta, zalantzarik gabe, Boric



ASIER BLAS MENDOZA  
EHU-KO IRAKASLEA

da prozesu konstituziogilea lagunduko duen Presidentea. José Antonio Kast-ek irabazi izan balu, prozesu guztia arriskuan zegokeen eta egungo politika neoliberal eta autoritarioetan sakonduko zukeen. Azken hau saihestea eta prozesu konstituziogilea berrindartzea, herrialdeak behar dituen aldaketa sakonak egiteko aukerak eta baldintzak sortzea da.

Ez da lan erraza izango, Txileko eskuinteko gobernuak bi urte daramatza prozesu konstituziogilea desprestigiatzen. Denbora honetan ezkerreko indarrek gai sinbolikoetan jarri dute indarra, ez da aurrerapen garrantzitsurik izan gehiengoaren bizi-baldintzen hobekuntzan. Adibidez, berriki parlamentuak abortuaren lege-proiektua bertan behera utzi du.

Txilen, Latinoamerika osoan gertatzen den bezala, oligarkia ekonomikoak basatiak dira beren pribilegioen defentsan. Horri erantsi behar zaio parlamentu oso zatituta dagoela, Boricek ez du gehiengoa izango, nahiz eta ezkerreko hautagaiak bigarren itzulira begira programaren elementu batzuk moderatu behar izan zituen babes-plataforma zabalagoa sortzeko. Halere, indar aurrerakoiak eta presidenteak badute non gotortu: Konbentzio Konstituziogilean sektore ezkertiar eta subalternoen gehiengoa sendoa da. Hamarkadetan neoliberalismoaren adibide arrakastatsu gisa erabili duten Txilen gauzak sakonki aldatzen badira, gauzak gehiengoaren mesedetan edonon alda daitezkeela erakutsiko da. ●

# Bizitza jokoan



UXUE APAOLAZA



PAULA ESTÉVEZ

**Z**ure bizitza jokoan jarri nahi baduzu, jarri, baina gainerakoen bizitza jokoan jartzea? Hori ezin dut ulertu". Aspaldidanik egiten ari dira, Sagarduiren aurretik. Ez dugu asko protestatu horren kontra, ez? Hainbeste frontetatik jartzen dute jokoan gure bizitza, aukeratu egin behar izaten da unean-unean zure aurkako zer hilketa ahaleginek asaldatuko zaituen. Baina hilketa horietako edozein gure funtzionaltasun produktiboa eragozten hasten bada, Osakidetzan amaituko dugu. Tira, Osakidetzarekin telefonoz hitz egiten. Munduko ospitale handienara ere iritsi egin behar da, eta, dirudienez, gero eta gehiago abiatu beharko dugu hara, diagnostikorik gabe, larrialdietara.

"Egoera honetan berritu eta indartu egin behar dugu Osasun Sailerik..." ari zen Sagardui, Osasun Sailburua. Azkenean! Zer? Zer indartuko dute Osasun Sailerik? "...herritarrei egiten diegun deia, kontu handiz ibiltzeko pandemia, ospitaleratzeak eta COVID bidezko heriotzak ez hedatzeko [gaztelaniazko bertsioan pandemia zen hedatzen zena] prebentzio neurriak betetzeko".

Datuak eman zituen segidan; txarrak. Tira, datuak horrela badaude, eta jendeak daukan elkartzeko joera hori area-

gotuko duten oporrak datozenez (lan egiteari utziko diogu, kontuz), zerbait egin beharko da. Gure lanarekin sortu dugu nahikoa diru zenbait gauza komun finantzatzeko, ez? "Osakidetza sare osoa kontingentzia planeko bigarren agertokian dago eta horrek eragin du kirurgia gutxiago programatu behar izatea". Nor ote da ebakuntzak egiten uzten ez duen kontingentzia hori, gainera, lehen arretan ere tentsioak sortzen dituena. Aurre egin diezaiogun bada kontingentziari, indar dezagun lehen arreta. "Hori dela eta, premia berezia ez duten kontsultak atzeratu egingo ditugu". Ahaztu egin zaio esatea kontsulta berririk ere ezingo dugula hitzartu, telefono deien kate batean tratatuko garela saiatuz gero.

Ea, egoera larria da ala ez? Gure gobernuari larria iruditzen zaio, bai ala ez? Nahasgarria da. Guk sortutako aberastasuna kudeatzen ari denari gertatzen ari dena oso larria iruditzen bazaio, gertatzen ari denak gure bizitzak arriskuan jartzen baditu, aukera bakarra zegoen. Prentsurrekoak osasun-sistema (osasunean burua ere sartzen da, badaezpada ere diot, arreta hori ere telefonoz egiten ari direnez) nola indartuko duten azaltzeko baino ez luke izan behar.

Mediku bat datorkit gogora, baliabide faltagatik protestan ari zela: "Eskuak falta zaizkigu, belarriak falta zaizkigu, fonendoskopioak falta zaizkigu, gure pazienteei entzuteko". Ez makina sofistikutuak. Eta non dago medikuek, erizainek... eskatzen dutena bermatzeko dirua? Zertarako erabiltzen ari zarete? "Zure bizitza jokoan jarri nahi baduzu, jarri, baina gainerakoen bizitza jokoan jartzea? Hori ezin dut ulertu". Sagardui txertatu ez direnei buruz ari zen: ba, nik ere ezin dut ulertu nola egiten duzuen, Sagardui anderea, ez dakit nola ausartzen zareten gure baliabideak hartu, porlanaren bidez zenbait laguntxori eman, eta gure bizitza jokoan jartzera. Nire bizitza ez baitute jokoan jartzen txertatu ez direnek, niri bizitza zuek kenduko didazue. Baina, lasai, ondo egiten ari zarete. Inkesten arabera, prentsurreko batera atera eta "lehen arreta lapurtu dizuegu" aurpegira esanda ere ez dugu ulertzen horrek "gu baino lehenago eta sufri-mendu askoz handiagoz hilko zarete, eta zuen dirua erabiliko dugu horretarako" esan nahi duela. Ayusoren askatasunaren bila gabiltza hemen ere, eta bestea muturren aurrean kenduko digite. ●

## Donoxtiya eta donoxtiarrak



JOSE IGNAZIO  
ANSORENA  
TXISTULARIA

**P**ío Baroja jaio zela ehun eta berrogeita hamar urte 2022.ean. Aita, Seraffin Baroja, San Sebastian Martxako hitzen egilea eta donostiarren arteko donostiarrik donostiarrena. Semeak, aldiz: "Gipuzkoarra naiz eta donostiarra: lehen-dabizikoa gustukoa dut; bigarrena, ezer gutxi. Ez zait atsegin Donostia arrazoi askorengatik". Eta nobela batean:

*-Zer dio aitak? -galdetu zuen apaizak- Ez du dagoeneko donoxtiarra ez naizenik esango. Donoxtiarra Donostian jaiotako pertsona bati mespretxu samarrez deitze-ko manera da.*

Barojaren iritziz, donoxtiar gehiegi zeogen. Hil zenetik kopurua haziz joan dela egingo nuke.

Danbolin soinuaren zalea zen: "Igan-deetan, arratsaldez, plazara joaten nintzen txistu eta danbolina entzutera. Danbolin miresgarriak zeuden, egun ez dauden bezalakoak, eta minuetoak eta kontradantzak jotzen zituzten aire klasi-ko bikainez. Jaietan, lau gure etxeko ate aurrean kokatu ziren, bi Azpeitiakoak ziren eta beste bi Zestoakoak, eta zoragarri jo zuten".

Beste batean nobelaren protagonistak, kalean ari den danbolinaren musika etxetik entzutean, honela dio: -Zeinen ederra! Ulertuko duzue ni barojazalea izatea.

Pablo Sorozabal donostiarra Don Pío-ren lagun ona izan zen: 2022.ean hura

jaio zela ehun eta hogeita bost urte. Barojarekin antzekotasunak bazituen, purrustadak botatzeko erraztasuna bereziki, baina beste *pelaje* batekoa zen, txit umoretsuagoa. 1955. urtearen inguruan Donostiako Udalak Hiriaren Urrezko Domina eman nahi izan zion. Sorozabal ez zen epelkeriazale: aire bidali zituen frankozale haiek. Monarkikrazia garaiko lehenengo udal gobernua eratu zenean, Ramón Jauregi buru, berriro eskaini zioten eta orduan, Franco ustez zuloan sartuta, onartu egin zuen. Ekitaldi solemnea apaintzeko udal ordezkariak aukerak proposatu zizkieten: kantu eta pianorako berak sortutako *liederrak* eskaintzea edo abesbatzetarako egindakoen antologia... Sorozabalek, ordea, txistularientzako prestatutakoak aukeratu zituen eta niri egokitu zitzaidan hura bideratzea: *Deba-ko Martxa, Gernika, Batelarien zortzikoa*. Sorozabal ere txistuzalea zen.

Donoxtiarrok Urrezko Danborra -horrela deitu arren, danbolina da- ematearen inguruan antolatu ditugun nahas-menduak ikusita, zer esango lukete bi donostiar handi hauek? Nori bururatu zaio, artearen merkantilizazio eta azal-keria garai hauetan, Esther Ferrer fundamentuzko artista apartari horrelako saririk ematea? Eskerrak ekitaldian txistulariok izango garen. *Donoxtiya, tarra-patán, mucho ruido y poco pan.* ●

## (Go)gora



ITXARO BORDA  
IDAZLEA

**U**rte hau bukatu da. Min egiten duten arren, egunak pasatzen dira eta Bruce Springsteenek kantatzen duen bezala, *Reason to Believe* bat aurkitzen dugu goiz oroz. Koronabirusaren hainbat aldaerek setiatu iragan ditugu hilabeteak, errealitateari buru eginez, beldurrak somatizatuz, estatuen larderia sanitarioari gure neurriko biopolitika intimoak parean jartzen saiatuz... 2022an halaber, ihardukitzeko eta bizitzeko arrazoi bila altxatu beharko dugu. Entzuten denaren arabera bederen...

Prezioen mailan, halako zartatze bat ezagutuko dugu urtariletik aitzina. Ez

dakigu gehiago, guzti hori ordaintzera helduko garen ala ez, soldatak eta erre-treta hain txikiak izanik (gehiengoaz mintzo naiz). Adibidez, premia-koak diren erregaiak eta elektrika larriki goratuko dira... eta idazleontzat kezka-garriagoa dena, paperaren eta tintaren prezioak ere bai. Gabetuenganako gorroto sozialaren abiadura berean ote?

Sutze horren zergatiak argiak omen dira: lehengaien eskasia, munduaren beste puntatik hona garraiatzeko gas-tuak, eta sekula aipatzen ez den enpresa multinazionalaletako akziodunen diru falanga. ●

# Langabeziaren jaitsierak ez du zertan berri ona izan



**ROSER ESPELT ALBA**  
EKONOMIALARIA

**A**zaroan okupazio-datu errekorrak erregistratu dira Espainiako Estatuan: 61.768 langile gehiago daude Gizarte Segurantzari afiliatuta (serie historikoko daturik altuena), eta langabezia pandemiaren aurreko zifretara jaitsi da (3.182.687 pertsona). COVID-19ari aurre egiteko ezohiko neurri ekonomikoien buruzko lehen lege-dekretutik ia 2 urtera, okupazio-mailan eragin positiboa agerikoa eta objektiboa da. Hala ere, argazki honek ez dizkigu erakusten estatu espainiarreko langile klasearen errealitatearen aurpegi guztiak.

2013tik, langabeziak goia jo zuenetik Estatuan (%26,66), lanpostuen sorrera etengabea izan da 2019ko hirugarren hiruhilekora iritsi arte, langabezia-tasa %12,23koa zenean. Hala ere, lan-merkatuan sartzen ziren pertsonen beste egoera batean egiten zuten, batez ere emakumeek. Bi lan-erreformek taxutu zuten lan-merkatu berria: enplegu sorrera okerrago ordaindutako lanetan kontzentratu da, aldi baterako kontratuekin, azpienplegu handiarekin eta kaleratze oso merkearekin. Barne-

Laneko errentek langabezia-tasaren pareko bilakaera izan dute: langabezia zenbat eta gehiago jaitsi, orduan eta gehiago jaitsi da langileriak eramaten duen pastelaren zatia

debaluazioko prozesu horrek eragina izan du langileen eta kapitalaren jabeen artean errenta banatzerakoan. Kontabilitate nazionalako datuekin, argi ikus dezakegu laneko errentek langabezia-tasaren pareko bilakaera izan dutela: langabezia zenbat eta gehiago jaitsi, orduan eta gehiago jaitsi da langileriak

eramaten duen pastelaren zatia. Eta txanponaren beste aldeak: kapitalak gero eta gehiago bereganatzen du ekoiztakoaren totaletik.

Langabeziaren jaitsierak ez die langileei galerarik eragiten zuzenean, ez litzateke egokia bi aldagai horien artean kausalitate-erlazio zuzena ezartzea. Izan ere, langabeziaren hazkundera bat dator laneko errenten igoerarekin, baina ez soldatak igotzen direlako, krisiaren lehen uneetan enpresen irabaziak oso azkar amiltzen direlako baidiz; eta mozkinen beherakada horren ondorioz, enpresek kaleratzeak egiten dituzte. Ekonomiak hobera egiten duen heinean, kapitala aberastu egiten da berriro. Pastela handitzen da ekonomia hazten delako, baina gero eta prekarizatuago dauden langileen pastelaren zatia proportzioan txikiagoa da, nahiz eta, eurak izan pastelaren egiazko ekoizle bakarrak.

Langabeziaren hazkundera beti izango da albiste txarra langile klasearentzat. Baina okupazioaren hazkunderak, kapitalismo espainiarraren baitan, ez du zertan berri ona izan. ●

## 2022 EuskarAbentura

espedizioa



IZEN EMATEA ZABALIK!

- 2005-2006an jaiotako gazteak
- Martxoaren 4ra arte

▶ [www.euskarabentura.eus](http://www.euskarabentura.eus)

Babesleak



Laguntzaileak



Euskaltzaindiak onartu badu,  
guk zergatik ez?



**\*12€**

**\*10€**  
Harpidedunentzat

[denda.gaztezulo.eus](https://denda.gaztezulo.eus)

**BULAR BAKARREKO EMAKUMEAK**

# EZKUTARAZI NAHI DIETENA, AZALERAZI





"Uste dut sozialki onartutako protesia bularreko minbizia duten emakumeak isildu eta elkarrengandik bereizteko modu bat gehiago besterik ez dela". Halaxe jaso zuen Audre Lorde idazle afro-amerikarrak 1980an, *The Cancer Journals* (Minbiziaren egunerokoak) liburuan. Lesbiana, feminista eta aktibista bera, bularreko minbiziaren ondorioz titi bat kendu zioten, eta bere bizipenetan oinarrituta argitaratu zuen liburua. Lau hamarkada geroago, aldarrikapen bera egiteko bildu dira gurekin Sandra Barkaiztegi Navarro, Olatz Mercader eta Elena Guinea: sistemak "ezkutatuta eta isilarazita" ditu titi bakarreko andreak eta horri aurre egiteko elkartu dira.

 LEIRE ARTOLA ARIN  DANI BLANCO

**E**uren gorputzen eta esperientziaren ahotsetatik, bularreko minbizia dutenen beharrak ikusarazi eta osasun-sisteman hutsuneak salatu dituzte. "Errealitatea ezkutatuta dagoen modu berean, gure beharrak ere ezkutatuta daude". Besteak beste, azpimarratu dute mastektomia ostean onkologoak aukera guztiak "maila berean" eskaini beharko lizkiekeela, zuzenean titiaren berregitera edo protesia jartzera bideratu gabe. Alegia, bere horretan geratzearen hautua normalizatzea. "Ez dago formula unibertsalik. Sistemak pertsona bakoitza ahaldundu beharko luke, bere kabuz erabaki dezan zein den beretzako aukerarik komenigarriena", laburbildu du Olatzek.

Nabari da Lorderen ideietatik edandakoak direla; hark bezala, hasieratik minbizi prozesua partekatzearen alde egin dute, elkar-zaintzatik eta ahizpatasunetik. Hirurek era desberdinean bizitu dute gaixotasuna, baina badituzte gako komun batzuk. Izan Inurri elkartean



topatu dute minbiziak azaleratutako minari eta bizitzari buruzko gogoetak elkarbanatzeko aukera, prozesu beretik igarotzen ari diren zenbait andrekin batera: "Arrosaz margotu gabe, minbizia naturaltasunez bizi dugu Inurri, feminisotik, maitasunetik eta goxotasunetik". Orriotan bezala, bular bakararekin eta bulartsu ageri dira, kementsu, elkarrekin salgai jarri duen 2022ko egutegian. Sandrak helburua argitu du: "Ez naiz biluzten nire gorputza ikusgarri egiteko, ikusezina izan ez dadin baizik". Jule-ne Illaramendik sortu zuen Inurri, eta gerora batu zitzaizkion Miren Cuerdo eta Irati Jauregi; tabuei aurre egiteko hainbat proiektu martxan jarri ditu elkarrekin. Lasarte-Oriatik abiatuta, "inurritegiak" Euskal Herri osora zabaltzeko desira dute.

### ESTIGMA BIKOITZA

Edozein minbizi da izatez prozesu latza, bai gaixotasuna gorputzen duenarentzat, bai hari bidean laguntzen diotenentzat. "Pertsonaren dimentsio guztiak harra-patzen ditu". Gainera, estigmaz beteta dago eta beldurra eragiten du; jendartea "minbiziari bizkar emanda" bizi da, hari izkin egin nahian-edo. Aitortu dute deserosotasuna eragiten duela gaiak, baina galderarik deserosoenak dira egiten ez direnak. Horrez gain, emakume horiek badute "gainkarga" erantsi bat, bularreko minbiziari aurre egiteko titi bana kendu baitiete. Estigma bikoitza.

Dena den, pixkanaka naturalizatu egin dute bular bakarra izatea. Zuzen bota du galdera Sandrak: "Momenturen batean pentsatu nuen bizitza galduko nuela, beraz, zer da titia galtzea?". Hirurak ados daude, bizitza da inportantea. Ordea, bularra galtzeak ere badu eragina emakumeengan. Batetik, norbere gorputzarentzat baliotsua den atal intimo bat kendu dietelako, hala nola plazerari, emakumetasunari eta sentimendu onei lotuta dagoena askorentzat. Bestetik, egungo sistema patriarkalak ez dituelako normalizatzen titi baka-dunak, "emakume oso" izateko bi bular edukitzea ezinbesteko baldintza delako jendartearen begietara.

Elenak gogaituta kontatu du mastektomia egin ondoren topatu zuen egoera, bai osasun-sisteman, bai arropa dandatan, bai eguneroko bizitzan: "Izugarriri harritu ninduen, erabat isilpean eta ezkutuan dagoen errealitatea da". Aintzane Artolaren kasua gogorarazi dute. Duela bospasei urte minbiziaren ondorioz bular bat kendu zioten, eta silikonazko protesiarekin oso ezeroso sentitu arren, sinetsarazi zioten arazoa bera zela. "Onkologoak esaten zion ez zegoela bera bezala pentsatzen zuen inor; baka-dade handia sentitu zuen". Protesirik gabe kalera ateratzeko "ausardia" izan zuen, eta hedabideetan titi-bakartasuna zabaltzen hasi zen lehenetarikoa izan zen. Olatzek eskertu egin dio, telebistan haren eta Izan Inurriren testigantza en-

tzunda ikusi baitzuen bazegoela aukera bular bakarrarekin bizitzen jarraitze-koa: "Zorionez, gero eta gehiago gara". Horixe nahi dute, egoera berean dauden emakumeak ez daitezela bakarrik sentitu, eta erreferente izateko prest daude.

### MINBIZIA ERE NEGOZIO BIHURTUTA

Zergatik dira sistemarentzat ikusezina-  
nak? Beste zenbait arrazoiren artean, kapitalismoari egotzi diote errua. "Nire burua den bezala maitatzea ekintza iraultzaile erradikala da", bota du harro Olatzek. Elenaren esanetan, izugarritzko negozioa dago estetika-estereotipoen atzean. Horregatik daude isilarazita: ez

dute diru-sarrerarik sortzen, ez dutelako behar ileorde, protesi edota beste-lako arropa berezirik gustura egoteko. Dena den, erosi nahi izanda ere, zailtasunak dituzte euren gorputz titi-bakarretara egokitzen diren jantziak topatzeko; bainujantzi eta bularretakoak, kasu. Apenas dauden, "eta daudenak oso garestiak dira". Gainera, ia guztiek daukate protesia sartzeko zorrotzkoa.

### OSASUN SARE PUBLIKOA EZ DAGO PREST

Donostiako Ospitalean eta Onkologikoan ordu asko pasa behar izan dituzte-  
nez, Osakidetzaren "hutsuneak" gertutik ezagutu dituzte. Nabarmendu dute pro-

fesional guztiak zoragarriak direla, bai-na baliabideak falta dituztela. Sandrak dio osagileek beren borondatek jarri behar dutela, instituzioek ez dietelako nahikoa erremintarik ematen. "Lazo arrosa gutxiago eta neurri gehiago", ke-xatu da Olatz.

"Osasun-sisteman sartzen zarenean denak oso ondo funtzionatzen du: punta-puntako makineria, medikuekin hitzorduak, analisiak... baina sentsazioa da zinta garraiatzaile batean zoazela". Giza-laguntzaren falta nabaritu dute, zalantzak argitzeko nahiz aholkuak eskatzeko. Esate baterako, Olatzek onkologoari galdetu zion ea norengana jo behar zuen nutrizioari eta ariketa fisikoari lotutako laguntza jasotzeko, eta erantzun zion hor ez direla sartzen. Aldiz, beste kontu batzuetan bai: ileordeak saltzen dituzten ile-apaindegien zerrenda eta protesiak saltzen dituztenena ematen dizkiete. Jakitun dira gabeziak ez direla onkologoenak, baizik eta sistemikoak; "bost minutuko kontsultetan gutxirako denbora daukate".

Bide horretatik, Donostiako Onkologikoko langileen borrokarekin bat egin dute. Hain zuzen ere, hilabeteak daramatzate salatzen Osakidetzakoek baino lan-baldintza kaskarragoak ditzutela, 2019an sare publikoan sartu ziren arren.

“

Ezin dugu kanpo juzguen mende bizi, gu horrelakoak gara eta listo, naturaltasunez hartu behar dugu”

**Elena Guinea**

### ESTETIKAREN AURRETIK, OSASUNA

Pertsonak "osasunaren eta zaintzaren ikuspegitik" tratatzeko osasun-sisteman aldaketa ugari egiteko beharra aldarrikatu dute. Esaterako, uste dute bularra berregitea aholkatzerakoan estetika osasunaren gainetik jartzen dutela medikuek.



“

Ez naiz biluzten nire  
gorputza ikusgarri  
egiteko, ikusezina  
izan ez dadin baizik”

**Sandra Barkaiztegi Navarro**





Titia berregitea "oso prozesu gogorra" iruditzen zaio Sandrari, "ikaragarria", eta Olatzek zera gehitu du: "Ez dezagun pentsatu berregitea hautatzen duena bide errazena aukeratzen ari denik". Azaldu duenez, sei ordu inguruko ebakuntza izan ohi da; besteren artean, bizkarretik gihar zati bat hartzen dute, eta, batzuetan, izterondoko azal zati bat ere bai, titiburua osatzeko. "Arriskuak azaltzen dizkizute, baina sotilki onartzen da hori egingo duzula". Olatzi "surrealista" iruditu zitzaion minbizi betean horrelako ebakuntza bat proposatze hutsa: "Hori ez da beste minbiziekin pasatzen".

"Ez dizute zuzenean aholkatzen berregitea, baina sistemikoa da". Sandrak hasieratik oso garbi zuen ez zuela hori nahi, baina kirurgialariek "badaezpada" azal zati bat utzi zioten mastektomia egindakoan, etorkizunean iritziz aldatu eta berregiteko desira balu aukera izateko. "Ez dute nire erabakia errespetatu", deitoratu du. Adibidez, Sandrak ez du gustuko orbaina nola geratu zaion, "badaezpada" soberan utzi dioten azalagatik, eta kritikatu du hori kentzeko ebakuntza ez dela gizarte segurantzaren baitako prozesuan sartzen; bai, ordea, bularra berregitea. Hortaz, salatu dute "aukeratzeko askatasuna" teorikoa dela.

Elenarentzat berriak dira berregiteari buruzko azalpenak, medikuei ez baitzien aukerarik eman horretarako. Argi zuen ez zuela egingo, eta Onkologikoko ginekologoak hasieratik errespetu osoz ulertu zuen. Halere, mastektomiaren bezperan medikuari deitu zion: "Gogorazazi nion, mesedez, ez nuela berregitearik nahi eta ez uzteko azalik".

### PROTESIAK EZ DIRA FUNTZIONALAK

Protesia ere Onkologikoan doan ematen dute, baina emakume hauek ez dute erabiltzen, "oso deserosoa" izateaz gainera, "ez delako funtzionala", gorputzeko beste protesi batzuk diren bezala. Olatzen bizitzan, esaterako, bularra oso garrantzitsua eta funtzionala izan da, edoskitzeari eta plazerari lotuta; baina hori ezin du berreskuratu. "Protesiak hori ez badit emango, nahiago dut nire gorputza orain dagoen bezala maitatu, eta baloratu zenbat disfrutatu dudan titiaz. Behin erabili nuela eta agur esateko garaia dela, bizitzan jarraitu ahal izateko". Oilo-ipurdia jartzen zaio oroitzera.

Hirurek aho batez aitortu dute hasieran bortitza dela bularraren ordeza orbaina ikustea. Dena dela, eguneroko lanketaren bidez, apurka normalizatu dute. Elenak azpimarratu du ezin dutela kanpo juzguen mende bizi: "Gu horrelakoak gara eta listo, naturaltasunez hartu behar dugu". Olatzen alabek horrelaxe ikusi dute hasieratik, umeei dagokien xalotasunez; amari esaten diote "titi pirata" duela eta orbaina "xalatu" dela. "Haurrek ez dituzte guk emakumetasunaren inguruan ditugun estereotipoak". Alaben begirada hori "ikaragarritzko ikasgaia" izan zela dio.

Sandrak gogorazazi du bizitza guztian zehar daudela emakumeak euren gorputzen gaineko lotsekin gatazkan, titiekin ala gabe. Inguru feministatik datoz hirurak, baina onartu dute minbiziak eragindako aldaketa fisiko zein psikologikoen ondorioz muturren aurrean jarri zaizkiela estetikari eta genero rolei

atxikita zituzten auziak. Feminismotik erantzun diote: "Lehen borrokalariak baginen, orain, are gehiago". Minbiziaren prozesuak "sofatik ezin altxatzeraino" ahuldu ditu, baina ahaldundu ere bai, aldi berean: "Askatasunetik egiten dugu borroka orain".

Olatzek aldarrikatu du zoriona ezin duela estereotipo jakin batek baldintzatu. "Gaur gaur da eta bihar agian ez gaude hemen. Zure alboan kimioterapia jaso duena ez dago hurrengo astean, eta agian hori zu zara". Topikoa baieztatu dute, hau da, bizitzari begiratzeko modua aldatu zaiela, arduren eta lehentasunen ordena irauli zaiela. Audre Lordek gogoeta hauxe utzi zuen: "Zerk gehiagok beldurtu gaitzake, heriotzari aurre egin badiogu hura besarkatu ostean? Behin onartuta heriotza existitzen dela bizitzaren prozesu gisa, aurrerantzean nork izan dezake berriro nire gaineko boterea?".

### GARAIZ ATZEMATEAREN GARRANTZIA

Koronabirusaren pandemiarekin batera pasatu dute bularreko minbizi hiru-ek, osasun publikoa inoiz baino gehiago mugatu duten honetan. Hain zuzen, Osakidetzak kalkulatu du EAEn 1.900 tumore atzeman gabe geratu direla 2020an, "COVID-19aren pandemiaren eraginez", horietatik 202 bularrekoak. Protokoloz mamografia egitea egokitzen zitzairen emakumeen erdiek soilik jaso dute proba egitera joateko deia. Beraz, datuak ikusita, "zortedunak" izan dira Sandra, Olatz eta Elena, garaiz atzeman baitiete minbizi.

Sandrak 49 urte bete berri ditu, eta duela bi urte diagnostikatu zioten, titian inoiz sentitu gabeko min-zitxada sumatutakoan medikuarenera joanda. Hasieratik jakinarazi zioten bularra kendu beharko ziotela, eta kimioterapia ere jaso du; urrian eman diote alta. Olatzek 45 urte ditu eta abenduan urtebete egin du minbizia diagnostikatu ziotela; bi alabaren ama, edoskitzen ari zela ohartu zen koskor txiki bat zuela, eta fase goiztiarrean harrapatu zioten. Prozesua pixkanaka igaro du: bi ebakuntza eta erradioterapia izan zituen hasieran, baina, nahikoa ez, eta hirugarren ebakuntzan bularra kendu zioten. Azkenik, kimioterapia tratamendua abuztuan bukatu zuen.

Elena uztailean konturatu zen koskor txiki bat zuela, 54 urterekin: "Ez zen oso ondo nabaritzen, baina nik banekien nire gorputza ez zela horrelakoa ". Oztopo handiagoa eta denbora luzeagoa izan du diagnosia jasotzeko, koronabirusaren bosgarren olatu betean izan baita, aurrez-aurreko arreta kenduta eta osagileak lanez gainezka zeudela. Azkenean, abuztuan esan zioten bi bularretan zuela minbizia. Tumoreak garbitzeko ebakuntza egin eta erradioterapia eman zioten, baina beranduago bular bat kendu behar izan diote; bi hilabetetan lau aldiz pasatu da kirofanotik. Egun, erradioterapia hartzen ari da, eta laster bukatuko du. Medikuei azpimarratzen die gauza korapilatzen bada beste bularra ere kentzeko; "ez da erraza, halere", erantsi du.

“

Sistemak pertsona bakoitza ahaldu beharko luke, bere kabuz erabaki dezan zein den beretzako aukerarik komenigarriena”

**Olatz Mercader**

Gorputzean zerbait arrotza nabaritu zutenean, heriotzan pentsatu zuten, ezinbestean. Hortaz, lasaitua hartu zuten onkologoak horri izen-abizenak jarri zizkionean: bularreko minbizia, metastasirik ez. Olatzek gaizki pasatu zituen emaitzak jakin bitarteko egunak. Sandrak eta Elenak, berriz, erabaki zuten lasaitasunez itxarotea; Elena deiaren esperoan zegoen, ziur baitzegoen bazuela zerbait, eta jarraipena lehenbailehen egin ziezaioten nahi zuen. Prozesuan ikasi dute bizitza eta heriotza ez direla kontrakoak, baizik eta biak elkarren osagarri direla, alaitasuna eta tristura zein osasuna eta gaixotasuna diren era berean. Gorputz berean leku egin diote oinazeari eta gozamenari. ●



“ ”

# *Euskararen mundutik jasotzen dituzten erreferentziak arrotz zaizkie periferiako gazteei*

**Naroa Jauregizuria Lopategi**

Ahize-AEK-ko kidea

Zertan da euskararen eta euskal kulturaren transmisioa gurean?

Zertan da haien birrartikulazioa periferian diren gazteengan?

Are, zertan dira transmisioa eta birrartikulazioa periferia geografikoan gabe, euskararen periferian bizi diren 12 eta 18 urte bitarteko gazteengan?

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

**G**alderok formulatzen hasi zen Naroa Jauregizuria Lopategi Mondragon Unibertsitatearen Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluaren amaierako proiektuan. Horik, berriz, abenduaren 2an Barakaldon burututako *Igo Bolumena!* jardunaldia heldu zen, Ahize-AEK-k antolatutik. Halaber, #Damolat unitate didaktikoa aurkeztu zuten bertan. Naroa Jauregizuriari berari joan gatzazkio galdezka.

**Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa eta birrartikulazioa periferian aztertu zenuen Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluaz jabetzeko proiektuan. Nondik abiatu zinen?**

Gaurkotasun handiko afera da. Euskal kulturaren periferiako herri eta hirietako gazteek ikastetxeen testuinguruan garatzen dute euskarazko munduarekin duten harremana. Maila horretan, transmisio sareek garrantzi handia daukate. Umeen kasuan, baita ingurune erdal-dunetako haurren kasuan ere, indarrez jasotzen dituzte zenbait eduki: Irrien Lagunak, EiTBko marrazki biziak, Ene Kantak, *Goazen* telesaila, Olentzero eta Mari Domingi, eta besteren batzuk. Baina, jakina, erreferentzia horiek zentzua galtzen dute nerabezaroan, eta bestalde, euskararen mundutik jasotzen dituzten erreferentziak arrotz zaizkie. Are gehiago, batzuetan, ikusezin; bestetzueta, deseroso ere bai.

**Ikusezin eta deseroso ere bai?**

Bai. Hala ere, gazte gehienak euskal komunitateko parte sentitzen dira, eta hizkuntzarekiko eta kulturarekiko lotura emozionalari eusten diote. Hortik abiatu nintzen gogoetan. Gaur egungo testuinguruan –politiko, ekonomiko, kultural eta soziala– kokatu nuen proiektua, Bilbo Handian, ezagutza gero eta handiago den, baina erabilera %10 izatera ez den Leioan, eta eskola giroan. Eta, batez ere, euskal kulturaren eta euskararen transmisioan eta birrartikulazioan modu eraginkorrean eragiteko praktika zehatzak ere eskaini nahi nituen.

**Leioan abiatu zenuen ikerketa, arestian esan duzunez.**



Bai, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ahi-ze-AEK-k egindako elkarlanerako hiztarmenaren bidez, hurbilketa teorikoa errealitatearekin alderatzeko lau interbentzio egin nituen: Leioako Jose Migel Barandiaran Ikastetxean, Betiko Ikastolan eta Mercedarias Ikastetxean. Horren ostean Bilbo Handira egin genuen salto, Getxora, Portugaletera eta Txurdinagara, eta une honetan azken saioak egingen ari gara Barakaldon. Guztien jarrera positiboa azpimarratuko nuke: irakas-

leek interes handia zuten, eta ikasleek, berriz, modu aktiboan parte hartu dute ekintza guztietan.

#### **Zer harreman dute gazteek euskal kulturagintzarekin, esaterako?**

Gutxi ezagutzen dute, baina hori ez da gazteen kontua bakarrik. Siadecok Elkar Fundazioarentzat egindako ikerketaren arabera, euskaldunen erdiak ez du euskarazko kulturarik kontsumitzen. Kontuan hartu, bestalde, euskal herritarren

%26 dela euskalduna. Gainerako %73 horri guztiz arrotza zaio euskal mundua. Gazteek erakutsi didate euskal literatura eta erreferenteak ezagutzen dituztela, euskal musikak ere lekua daukala euren egunerokoan –baina diskoak gabe, kantak entzuten dituzte, batez ere–, erdal munduko produktuak kontsumitzen dituzte, baina euskal taldeen kontzertuetara joaten dira. Badira euskal kulturarekiko atxikimendu handia duten gazteak, kontzientzia politikotik egiten dute lotura hori. Bestalde, bertsolaritza ere euskal munduan murgiltzeko bide garrantzitsua dute eta dantza taldeen papera ere azpimarratzekoa da, haur eta gazteak komunitateko parte sentiarazten baititu. Oro har, gazteek jai giroan eta ikastetxean gauzatzen dute euskal kultura eta euskararekiko harremana.

#### **Zer ikuspegi dute euskal kulturaz?**

Ikuspegi teorikoa dute, horrela esan babiliteke, behintzat. Gramatikaren ezagutzarekin lotzen dute euskara, gaitasun tituluarekin. Euskara ez da funtzionala, euskaraz jakin gabe lasai bizi daitezke. Loturarik izatekotan, eremu afektiboan dute, aurreko belaunaldietatik jaso eta zaindu beharreko altxortzat dute. Nik esaten dut gazteentzat euskara aitaitaren eta amamaren antzekoa dela: oso maiteak, baina joandako garai batekoak. Eta ikastetxeak bakarrik ezin du, ez dago burbuila batean sartuta. Gizarteak ez badio euskarari eta euskal kulturari baliu sozialik ematen –hedabideetan, lan munduan, kirolean, erakundeetan...–, gazteek ere ez diote baliorik emango, eta gaztelaniaren aldeko hautua egingo dute, hizkuntza horretan funtzio sozial guzti-guztiak garatu ditzakete-eta. Euskaraz, aldiz, ez.

#### **Eta, orduan, nondik jo behar da gazte horiei gaur egungo euskara eta euskal kultura transmititzeko eta berrartikulatzeko?**

Euskararen egoera diglosikoa aldatzen ez den bitartean, ikastetxeak dira gune erdaldunetan euskara eta kultura transmititzeko eta artikulatzeko gunerik garrantzizkoenak. Eusko Jaurlaritzaren 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoaaren arabera, 16-24 urte bitarteko euskaldunen artean erdia baino gehiago hiztun berriak dira, eskolan jaso dute euskara. Hizkuntza normalizaziorako politikan eta estrategian oso kontuan hartu behar da datu hori. Hiztun berri horiek hiztun aktibo bihurtzea da erronka. Hemendik

urte batzuetara, lanean hasiko dira, familia sortuko dute, aisialdian ere ariko dira... eta, hortaz, gazteei euskara irakatsi ez ezik, euskaraz bizitzeko baliabideak ere eskaini behar dizkiegu. Horregatik, 18 urte inguruko gazteengan eragin behar dela uste dugu.

### Zergatik, justuki, adin horretako gazteengan?

Euskarak gazte hauen parte izateko duen gaitasunaren arabera jarraituko duelako aurrera. Edo haien parte bihurtzen da edo museoko pieza bihurtuko da. Nahitaezkoa da adin tarte horretan diren gazteekin lan egitea ikastetxean. Adin horretan eratzten ohi da identitatea, adin horretan garatzen ohi dira kultur ohiturak ere. Gaur egun, euskarak esanahia galtzen du adin horretan. Umetako Argitxo, Pirritx eta Porrotx edota Goazen ez dira baliagarri, balioa galtzen dute nerabezaroan. Haurtzaroko erreferentziek ez dute balio, familiak ere pisua galtzen du... Euren erreferentzia propioen bila abiatzen dira gazteak: era jakin batera jantziko dira, era jakin bateko telefonoa izango dute... kultur kontsumo jakin batera joko dute.

“ ”

***Euskal kulturarekiko atxikimendu handia duten gazteek kontzientzia politikotik egiten dute lotura hori***

### Sare sozialen bete-beteko eraginpean, inondik ere.

Adin tarte horretako gazteak teknologia berriekin harremanetan dira jaio zirenez geroztik. Gero eta lehenago egiten dute bat helduen munduarekin; edukiak kudeatzeko heldutasunik gabe, ordea. 1995az gero jaiotakoak belaunaldi sozial moduan definitzen ditu IAB-k [Interactive Advertising Bureau]. Bulego horren arabera, gazte horiek aldi berean bospasei sare sozial kudeatzen dituzte eta ordu 1 eta 24 minutu ematen dituzte bertan. Instagram, Snapchat, Tumblr, 21 Buttons, Twitch eta Musically erabil-



tzen dituzte, batez ere. %92k, *influencer*-en bat jarraitzen du, Instagramen eta Youtuben, bereziki. Telefono mugikorra daukate, jakina, eta egunerokoa dute Internet. Horiexek dira oraingo gazteak. Distantzia fisikorik ere ez dago kasik, mundua eskura dago: hegazkinak hor direlako beti, eta supermerkatuan, berriz, kasik mundu osoko produktuak dituztelako aukeran. Gazteek gero eta izaera translokalgooa daukate.

### Zein dira zure lanaren ondorio nagusiak?

Periferiako gazteak euskal kulturaren zentrotik urrun daude, eta beraz, sortzaileak eta produktioa ez dituzte behar bezala edo behar beste ezagutzen. Euskal kulturaren erreferentziak estereotipatuta ikusten dituzte, eta arrotzak zaizkie. Ondorioz, euskal kultura jasotzeko eta euren bizitzan artikulatzeko zailtasun handiak dituzte eta, aldi berean, baita euskal kultura eragiteko mugak ere. Periferiako gazteek ikastetxearen bidez –eta hein handi batean jaien bitartez–, egiten dute euskara eta euskal kulturarekiko harremana, eta ikusi da D ereduak ez duela helburu dugun transmisio eta artikulazioa bermatzen... Hainbat ondorio.

### Honenbestez, nola eragin gazte horiengan?

Arazoa egiturazkoa da eta euskarak eta euskal kulturak jendartean duten pisuarekin eta posizioarekin lotuta dago, beraz, kokapen hori aldatu ezean oso zaila da egoera iraultzea, eta euskara eta euskal kultura gazteentzako erabilgarria, baliagarria eta garrantzitsua bihurtzea. Gu bi ekarpen xume egiten saiatu gara: alde batetik, fokua periferian jarri eta horren inguruko hausnarketa sustatzeko jardunaldia antolatu dugu; bestetik, ikastetxeei laguntzeko jarraibide gida eta #Damolat ikas unitatea sortu ditugu.

### Ikastetxeek ahalmen mugatua dute, hala ere.

Bai, baina, egun, gazte askorentzat euskararen munduarekin lotura-hari bakarrenetakoak dira. Aipatu hari horiek sendotzeak eta edukiz betetzeak berebiziko garrantzia dauka, hizkuntza irakatsi eta kultur sorkuntza transmititzearekin batera, beste eremu eta erdigune batzuetarako konexioak erakitzen lagundu baitezakete. Ildo horretatik, ikas unitatean, euskara bera bultzatzeko ekintzak baino, euskararen mundua ezagutzeko eta bizitzeko ekimenak eta dinamikak jaso ditugu, oso zaila baita –ia ezinezkoa– ezagutzen ez denarekiko interesa izatea, eta are zailagoa diglosiaren ondorioz euskararen mundua gutxietsi eta topikoz betetzen denean. ●



QATAR 2022

# Has dadila diktaduraren ikuskizuna

Urtebete baino gutxiago falta da Qatarren gizonezkoen Munduko Futbol Txapelketa hasteko. 2010eko abenduaren 2an esleitu zion FIFAk datorren edizioaren antolaketa, eta lehen unetik zalaparta sortu du hautagaitzak. Diktadura zuritzeko trikimailua dela egozten diote askok eta, kezkarriagoa dena, estadioak eta gainontzeko azpiegiturak eraikitzeko obretan 6.500 langile baino gehiago hil direla salatu dute hainbat erakunde.

 IÑAUT GONZALEZ DE MATAUKO RADA

**M**unduko Txapelketa antolatzeko ardura lortu aurretik ere, Qatar hautagaien artean egoteak eragin zuen polemikarik, batetik, herrialdeak futboleant ez duelako tradizioz, eta bestetik, hango klimaren muturreko baldintzek nazioarteko futbolaren egutegia guztiz aldatzea behartuko zutelako. Halaber, lan baldintzak jo-puntuak ziren ordurako, eta askok gogorazi zuten diktadura zuritzeko estrategiaren parte zela futbola.

Egin dezagun denboran apur bat atzera. Qatarrek nazioartean pisua irabazi du petrolio putzuengatik. Apenas garrantziarik izatetik, Ekialde Hurbileko potentzia handienetako bat bihurtu da. Petrolio eta gas naturala deskubritu aurretik, hango ekonomiaren oinarriak arrantza eta perla-bilketa ziren. 1971. urtean lortu zuen independentzia Britainia Handitik, eta ordutik Al Tahni sendiko kideen eskuetan mantendu da agintea.

1940ko hamarkadan deskubritu zuten petrolio, eta horrek guztiz aldatu zituen herrialdeko kultura, ohiturak,

ekonomia eta demografia. Nazio Batuen Erakundearen datuen arabera, 1960. urtean 47.383 pertsona bizi ziren Qatarren, eta handik hamar urtera, bikoitza baino gehiago, 109.521. Biztanleriaren hazkunde tasa mantendu egin zen XX. mendearen amaierara arte, baina XXI. mendearen hasieran are gehiago hazi zen: 2000. urtean 594.000 pertsona bizi ziren Qatarren, 2010ean 1.715.000 eta 2020an 2.684.000.

Hazkunde esponontzial hori herrialdeak jaso duen migratzaile kopuruak eragin du bereziki. Hasiara batean petrolio findegietan lan egitera zihoazen, eta 2010ean munduko txapelketaren esleipena jaso eta gero, are pertsona gehiago joan dira azpiegiturak eraikitzeko obretan lan egitera. Gehienak Iran, Pakistan eta Indiakoak dira, eta gaur egun biztanleriaren %80 dira. Migratzaile gehienak gizonezkoak dira, eta horrek gehiago desorekatu du demografia: 2.165.135 gizonezko daude Qatarren, eta 715.925 emakume (biztanleriaren %25).

Historikoki beraz biztanleria txikia izan duen herrialdea da Qatar, eta futbolarik ez du ia pisurik izan. Hori horrela, 2010eko abenduaz geroztik, agintariak izugarriko inbertsioa egin dute futbola garatzeko, potentzia bihurtzeraino. Europako hainbat jokalarik eta entrenatzaile ezagun eraman dituzte garapen horretan laguntzeko.

Estadio guztiak hutsetik egin dira; are gehiago, hiri berriak sortu behar izan dituzte. Finala, adibidez, Lusail hirian jokatuko da, 2005. urtera arte existitzen ez zen lekuan. Azpiegitura guztien eraikuntza bermatzeko, estatuak historiako inbertsio handienetarikoa egin du: 200.000 milioi dolar (178.000 milioi euro inguru).

## XXI. MENDEKO ESKLABOTZA

Milaka eta milaka langile joan dira Qatarren inguruko herrialdeetatik, familiak utzita, eraikuntza lanetara. Etxe orratzak, estadioak, hotelak, entrenamendu zentroak eta errepideak eraiki dituzte bazter guztietan, eta Demokraziaren al-



PALACIO DO PLANALTO / WIKIMEDIA

**AL JANOUB.** Jair Bolsonaro Brasilgo presidentea (kamiseta gorriarekin), Al Wakrah hiriko Al Janoub estadioan, 2019ko urrian, hura inauguratu eta hilabete gutxira. 40.000 ikusle har ditzake.

deko Nazioarteko Fundazioak argitaratutako Pasioaren atzean dagoena txostenaren arabera, 2010az geroztik 6.500 langile hil dira, astean hamabi batez beste. Duela aste batzuk hildako langileen inguruan galdetu zioten nazioarteko hainbat hedabidek Qatar 2022ko zuzendari exekutiboari, Nasser Al-Khaterrri, eta hauxe erantzun zuen: “Hildakoak? Hiru dira, eta gainontzeko guztia gezurra da”.

Segurtasun faltaz gain, beharginen muturreko lan baldintzak pairatzen dituztela ere adierazi dute giza eskubideen aldeko hainbat elkarterek eta fundazioek; hamasei eta hemezortzi orduko lanaldiak direla salatu dute besteak beste.

Arabiar Penintsulako ia herrialde guztiek baliatzen duten Kafala sistemaren bidez lortu dute migratzaileek Qatarrera lan egitera joatea. Laburbilduz, herrialde horietara lanera joan nahi duten pertsonak “babesle” baten baimena behar dute, zeina langilearen bisaren eta estatus legalaren arduraduna izango den. Hala, babesle edo jabe horiek langilearen kontrol osoa dute eta, esaterako, migratzaileak familia bisitatzera itzultzeko baimena eskatuz gero,

ezezkoa jasotzen du gehienetan (aurrez pasaporteak “konfiskatzen” diete euren babesleek, nolabait definitzearen). Lan ez aldatu nahi dutenean ere baimena eskatu behar diote jabeari (termino hau egokiagoa da), eta orduan ere, ezezkoa da ia beti. Giza eskubideen aldeko elkarterek eta fundazioek esklabotza sistema gisa definitu dute.

Qatarrek 2017. urtean abiatu zituen Kafala sistema desagerrarazteko tramiak, eta 2020ko abuztuaren onartu zituzten hura indargabetzeko legeak, baina Amnistia Internazionalak (AI) salatu du prozedura horrek urtebete daramala geldirik, eta abusurik krudelenak itzuli egin direla. Erakundeak langile batekin hitz egitea lortu zuen, eta “paperean jaso diren aldaketak” horretan geratu direla zioen: “Enpresa batean sartzen zarenean ikusten duzu langileen baldintzei dagokienez ez dela egon ia. Egoera beldurgarria da oraindik ere”.

### **FUTBOLA, PROPAGANDARAKO TRESNA**

Kirola betidanik izan da propagandarako tresna, estatuek baliatu dute haien mesederako. Qatarren kasuan, 2022ko

txapelketak ahalbidetuko dio munduari bere buruaren irudi positiboa saltzea. *Sportswashing* deitzen zaio, irudi garbiketa kirolaren bitartez. Gizonezkoen munduko txapelketa kirol ekitaldi ikusienetarikoa da, Olinpiar Jokoekin eta Europako Txapelketaren Futbol Ligarekin batera. 2018an Errusian jokaturako Munduko Txapelketaren finala, esaterako, 1.120 milioi lagunek ikusi zuten, FIFAren datuen arabera, eta 3.572 milioi lagunek ikusi zuten uneren batean edizio hartako partidaren bat.

Munduaren arreta hori guztia bereganatzeak, bestalde, nazioartean aitortza handiagoa izaten eta pisua irabazten lagunduko dio Qatarri. Herrialdeak tentsio geopolitiko handiak ditu Saudi Arabiarekin eta Arabiar Emirerri Batuekin, eta nazioartean onarpen horrek Saudi Arabiaren balizko inbasio bat zailtzen du de facto; izan ere, munduko potentzia nagusiek Qatar begi onez ikusteak aliatuak sortzen ditu etorkizuneko gerra diplomatiko edo beliko bati aurre egiteko.

Beste alde batetik, petrolioarekiko eta gas naturalarekiko hain menpekoko den ekonomiari ondo datorkio dibe-



LUBAIB PHOTOGRAPHY

**ATSEDENA.** Beharginak lurrean etzanda, atseden hartzen. Hainbat erakundek salatu dutenez, lanaldiak hemezortzi ordukoak izatera hel daitezke.

tsifikatzea eta lehengaien ustiapenak barne produktu gordinean duen pisua leuntzea. Hori dela eta, herrialde arabiarrek Qatar 2030 izeneko plana abiatu zuen 2008an, sektore ekonomiko berriak garatzeko, eta kirolak -futbolak batez ere- berebiziko garrantzia hartu zuen. Ekonomiaren dibertsifikazio horrek ardura inportantea dauka herrialde horien garapenean, kontuan hartzen badugu ustiatzen dituzten lehengaiak egunen batean amaitu egingo direla.

### AURKAKO AHOTSAK

Izan da Munduko Txapelketa kritikatu duenik, baina aurkako mezuak ez dira espero bezainbat zabaldu. Hainbat gobernuz kanpoko eragile eta gizarte mugimendu borrokatu dira ekitaldi erraldoi horren aurka, baina ez dute pisu handia irabazi. Futbolaren munduan ez da Qatar 2022ri boikota egiteko mezurik zabaldu, beste kirol ekitaldi batzuetan gertatu den moduan. Ameriketako Estatu Batuek, esaterako, Beijingko Neguko Olinpiar Jokoen aurkako kanpaina diplomatikoa abiatu dute, baina Qatarreko txapelketaz ez dute txintik ere esan.

Norvegiako futbol jokalaria izan dira langileek Qatarren pairatzen dituzten muturreko balditzen aurka ekintza sinboliko bat egin duten bakarrak. Aurten go martxoan, sailkapen partida batean

---

*Oraindik ere Kafala sistemaren menpe daude langileak. "Babesle" edo jabe batek du haien gaineko kontrol osoa*

---

"Errespetua: zelai barruan eta kanpoan" zioten elastikekin atera ziren zelaira. Hain justu, pasa den azaroan, Qatarreko langileen baldintzen inguruko errepor-tajeak egiten ari ziren bi kazetari norvegiar 32 orduz atxiki zituzten.

### ZURIKETAK

Qatarrekoa, baina, ez da sportswashing eredu bakarra. Espainiako eta Italiako Superkopen edizio batzuk esaterako Saudi Arabian jokatu dira, eta 2018. urteko Txapeladunen Ligaren finala Kieven jokatu zen, Ukrainan, gerran dagoen herrialde batean. Futboletik harago badira adibide gehiago. Txirrindularitzan, 2018ko Italiako Giroaren lehen hiru etapak Israelen egin ziren; Netanyahuaren gobernuak hamar milioi euro inguru ordaindu zizkion Italiako Giroaren antolakuntzari, eta Jerusalemgo karririk Israelgo banderez josi zituzten.

Herrialde horiek beren buruaren irudi positiboa saltzeko beste metodo bat ere erabiltzen dute: klubak erostea. PSG, Manchester City, New York City, eta orain Newcastle United taldeen jabeak Qatar, Saudi Arabia eta Arabiar Emirekko Batuetako gizon boteredunak dira. Petrolio medio, hiru herrialde horiek etengabe ari dira hazten, eta munduko herrialde dirudunen artean daude. Joko-taulan garrantzia irabazten ari dira, eta hasieratik nazioarteko onarpena lortzeko estrategiak jarri dituzte martxan, kirolaren bidez tartean. Eta dirudienez, helburuak lortzen ari dira gutxinaka. ●

## EMAGIN-EN "GURE BEGIRADEN ALBO-KALTEAK" JARDUNALDIAK

# Kolapsoari eta krisi orokorrari ekofeminismotik aurre egiteko premia

Bizi dugun krisi globalaren alde bat baizik ez da klima larrialdia, eta komeni da begirada zabaldu eta arazoari bere orokortasunean begiratzea. Hori argiturik, kolapsoa ukan du hizpide formakuntzan eta ikerketa feministan dabilen Emagin-ek. Giroa katastrofista izanda ere, nahi ditugun bizitzak definitzen eta defenditzen segitzeko beharra azpimarratu dute hizlari ezberdinek. Bide horretan, ekofeminismoaren mugimendua premiazkoa daukate guztiek.

## JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**T**estuinguru katastrofista honetan nola egingo dugu bizitza tiki eta konkretuek garrantzirik ez galtzeko?; "Egoera gaizki doa, okertu egingo da ere. Hori pentsatu arren, zer egingo dugu horrek ez gogogabetzeko eta deprimitzeko, baita alderantziz ere, aldaketarako indarra emateko?". Galdera horien inguruan dabil hausnarraren Amaia Perez Orozco ekonomialari eta feminista aktibista. Ekologismoa eta feminismoa gurutzatzen diren lekuari so jarri eta hainbat giltza eta gogoeta plazaratu zituen Emaginek antolatutako *Gure begiraden albo-kalteak, nola aldatu gure mundu ikuskerak ekofeminismotik jardunaldian*.

Testuinguru hau kolapsoarena da, Orozco dioen gisara, klima aldaketa baino askoz zabalagoa den errealtatearena. "Erreproduktio sozialaren krisian" gara: zaintza, osasuna, elikadura, etorkinen eskubideak, energia pobrezia, eta beste hainbat alde barne biltzen dituen krisian sarturik gara. "Intentsitate ezberdinetan bada ere, mundu mailan eta testuinguru ezberdinetan ez gaude ongi, gaizki-izate batean gara, ongi-izatea bukatu da".

"Kolapsoan bagara ere, edozein borroka merezi du, eguneroko elkar zain-

tzak pena merezi du". Hori gabe, gure bizitzak zaurgarri izatetik prekario izatera pasatzen direlako, prekarizazioa "existentzia-erregimen berri" eta "bizitza eredu berri" bihurtuz. Bizi dugun aroa "antropozenoa" da, giza espeziearen jarduerak ekosisteman eragindako aldaketena; beste batzuk "kapitalozenoa" terminoarekin definiturikoa, jarduera hauek kapitalismoa ukanki oinarrian.

Irakasle eta agroekologian aditu Mirene Begiristain Zubillaga ere egon zen ekarpenak egiten. *Jakin-en* 245-246 aleetan plazaraturiko *Ekofeminismoen txirikordak* artikulua hartu zuen oinarri. "Ekofeminismoak orainaldia kuestionatzea ahalbidetzen diguten pentsamendu eta praktika kritikoak dira" eta hortik badago kolapsoari aurre egin eta aldaketa sozial iraunkorra sustraitzeko aukera. Hain zuzen, patriarkatua eta naturaren ustiapena txanpon beraren bi alde direlako ia ekofeminismo guztien arabera -feminismoaren modura anitza izanik, ez dago irakurketa partekatu bakarrik ekofeminismoan-.

Haien borroken berri ematen egon ziren elikadura burujabetzaren inguruan dabilen Etxaldeko emakumeen taldea eta Baztaneko Aroztegia megaproiektu urbanistiko eta turistikoaren kontrako

Aroztak herri kolektiboa. Mundu mailan bezala Euskal Herrian ere, elikadura burujabetzaren alorrean eta proiektu suntsizailen parean kausituriko erresistentzietan ditugu ekofeminismoaren praxi garatuenak. Lokalaren eta globalaren bidegurutzean kokatzea da lanabes honen ezaugarrietako bat: "Tokian toki erroturiko borroka eraman behar ditugu, baina dimentsio internazionalistekin", Orozcoren hitzetan.

Ekologismoa eta feminismoa bi borroka eder izanda ere, hutsuneak daukate, ekofeminismoak gainditu ditzakeenak: "Feminismoak ezinezkoa du bere izate-nahi internazionalista eta antikolonialista ekologismotik urrunduta" eta "ekonomia ekologikoak eta ekologismoak ezer gutxi aurreratuko du bere teoriak, praxiak eta mugimendua despatriarkalitzatu ezean", Begiristainen hitzetan. Funtsean, horretaz kontziente zituen Emaginek jardunaldi hauek antolatu, kontziente delako begirada ekologista ez dutela zor zaion tokian kokatzen -"jakitun gara asko garatu dugula feminismoa hiriguneetatik eta begirada ekologista ez dugula gure praktika politikoaren lehen lerroan jarri"- . Feministen esparru geroz eta zabalago batek iparrorratz harturiko interseksionalita-



te politikoa lantzeko abagunea ere bada mugimendu hau, Begiristainen iritziz: “Desberdinkeriak eta desberdintasunak aintzat hartuz, aliantzak sortzeko abagunea ere bada teorian eta praktikan ekofeminismotik interseksionalitate politikoen ardatz desberdinen zapalkuntzetan murgiltzea”. Bide beretik, “subjektibitate berrien eraikuntzari” ere ekarpen interesgarriak dakarzkiera dio.

### DESZAKUNDEA, BAINA MODU PLANIFIKATU BATEAN

Orozco, Begiristain zein hizlari egondako irakasle eta militante ekologista Esti Villamorrek, hiruek zuten desazkundera bai ala bai hartu beharreko bidetzat –eta nahi ez bagenu ere, hartu beharko dugun bidetzat, kolapsoak horretara garamatzalako: materia, energia eta hondakin gutxiagorekin bizitzera-. Baina, benetako erronka hizlariak planteaturiko galderan dago: “Desazkundera badator. Baina nola? Birbanaketan eta justizia globalean oinarriturik, edo, batzuei pairaraziz eta besteen metatze eta espoliozioekin jarraituz?”. Erantzun ere

egin zuen Orozcok, deitoratuz gaur egun ez dagoela desazkundera planifikatzeko joerarik. Joera kapitalozeno honetaz ohartzeko, *nire baratzean ez jarrerarekin bukatzea gomendatzen du*: “Nire zaborra joan dadila urruti, parke eolikorik ez nire begien bistan... guztia horrela. Baina gurean behar ditugu, gure bizi moduak eskatzen eta ondorioztatzen duenaz benetan ohartzeko”.


Ekofeminismotik gure bizitzak gure esku hartzeko eta komunitateak osatzeko beharra are garrantzitsuagoa da, jakinik erreproduktzio sozialaren krisiak eragindako bi sentimenduak eskuin-muturrak zukutzen dituela: kontuan hartua ez izatearena eta horrek eragindako bakardadearena. Orozcok argi dauka: “Aldaketaren ardurak hartuz” eta desazkundera adostu bat planteatuz, bizi nahi ditugun bizitzak definitu behar ditugu, “unibertsaltasunetik” eta “eko-arduraren eraikuntzatik”. Bestela, seguru asko eskuin-muturrak bilduko lituzkeelako desazkundera basatiaren uztak.

Sistema irauliz bideratu beharreko aldaketa izanen da eta agintari

aterabide gisa planteaturiko trantsizio energetiko, numeriko edota berdeak ez dute balio. Energia berriztagarriek muga anitz dituzte: eraikuntzarako behar diren materialekiko menpekotasuna; ingurumenaren suntsiketa; kolonialismoa –nazioartekoa, demagun, mineral meategiak Hegoalde globaleko herrietan kokatuz, zein barnekoa, adibidez, Arabako mendietako parke eolikoak inguruko hirien energia beharrak asetzeko–; eta abar. Zer erranik ez, numerikoak dakarren kutsaduraz. Zentzu horretara, Europar Batasunaren *Green Deal* Itun Berdearen kritika ere egiten du Orozcok, adosturikoak ez duelako benetako aldaketarik –eta beraz soluziorik– bideratzen.

Galdera, helburu eta aldaketa politoak dakartza berekin kolapsoak. Jardunalditik Euskal Herri mailan horretaz hausnartzeko premia plazaratu zuten, herri borroka ezberdinetan ekofeminismoa txertatzearen eta mugimendu feministaren eta ekologistaren arteko artikulazioaren beharrak azpimarratuz. ●

# Egutegiak edo doitzeko artea



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA


**A**berdeenshire (Eskozia) duela 8.000 urte. Gizakiek 12 harriz osatutako monumentu megalitikoak egin zuten, urtean zehar ilargiak dituen posizioak jasotzen zituena. Hala, ilargi egutegi moduko hori ezagutzen den egutegi zaharrena da..

Duela 5.000 urte Mesopotamian ere ilargi egutegia erabiltzen zuten, urte 12 ziklotan banatzen zuena, baina babiloniarrek eta sumertarrak konturatu ziren ez zetorrela bat eguzki urtearekin eta, lau urtez behin, hilabete luze bat gehitzen zuten, desfasea nola edo hala konpontzeko.

Lehen eguzki egutegia egiptoarrek asmatu zuten duela 3.000 urte inguru. Egiptoar astronomo eta matematikariek kalkulatu zuten urteak 365 egun zituela eta, horregatik, 30 eguneko 12 hilabetei, 5 egun gehitzen zizkieten eguzki urtea osatzeko. Ozeanoaz bestalde ere, maiek bazekiten 365 egun irauten duela eguzki urteak, eta duela 2.000 urte inguru oso egutegi zehatzak egin zituzten, esaterako, Erromatar Errepublikan erabiltzen zituztenekin alderatuta.

K.a. VII. mendera bitartean 10 hilabete eta 304 eguneko egutegia erabiltzen zuten Erroman. Orduan, beste bi hilabete gehitu eta 355 eguneko erabiltzen hasi ziren. Julio Zesarrek Egiptora bidaiatu zuenean, ikusi zuen han egutegi askoz zehatzagoa erabiltzen zutela eta, hura oinarri hartuta, eta bisurteak lehenengo erantsita, 15 mende Mendebaldean erabiliko zen egutegi doiagoa ezarri zuen.

Baina juliotar egutegiak 10 eguneko desfasea pilatua zuen 1582. urterako. Horregatik, Gregorio XIII.a aita santuak egutegi zehatzagoa enkargatu eta ezarri zuen. Luigi Lilio mediku eta astronomoak egin zuen egutegi berria, eta pilatutako desfasea pixkanaka gehitzea iradoki zuen; bisurte bakoitzean egun bakarra gehitu ordez, bi gehituz gero, 40 urtetan arazoa konponduta egongo zen. Baina ordurako aita santua hilda egongo zen, eta Gregoriotik berehalako emaitzak



Gregoriotar egutegia, 1582. urtean eguzki urteari ia erabat doitzea lortu zuena.

nahi zituen. 10 eguneko tartea hozkada bakarrean jatea erabaki zuen; 1582ko urriaren 4ko biharamuna urriaren 15a izango zen. Hala, aita santuak aitortza behintzat lortu zuen; gregoriotar egutegia esaten zaio erabiltzen dugun egutegiari. Baina bestelako arazoak ere eragin zituen.

Europako herritar eta tokian tokiko agintari askok ez zuten gogo onez hartu pontifizearen erabakia, denbora lapurtzen ari zitzaiela uste baitzuten. Ondorioz, herrialde batzuetan berehalak ezarri zuten egutegi berria, baina beste batzuek ez zuten egutegia XX. mendera arte eguneratu. Data historikoetan hainbat gorabehera eragin zituen horrek on-

dorengo urte eta mendeetan. Esaterako, Miguel de Cervantes eta William Shakespeare idazleek heriotza data ofiziala partekatzen dute (1616ko apirilaren 23a) egun berean hil ez ziren arren, eta 1917ko Urriko Iraultza boltxebikea azaroan gertatu zen gregoriotar egutegiaren arabera.

Eta desfasearen arazoa behin betiko konpontzea ere ez zuen guztiz lortu, gregoriotar urte urte astronomikoa baino 26 segundo luzeagoa baita. Horrek esan nahi du 3323 urtetan egun bateko desfasea pilatzen dela. Astronomoek konponbide urruna aurreikusitako tarte txiki hori zuzentzeko: 4000. urte ez da bisurtea izango, eta 8000. urte ere ez. ●

## URTE AMAIERAKO BATZARRA



DANI BLANCO

## Momentuek ere zaporeak dituzte

### ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**N**ori ez zaio umetako oroitzapen bat burura etorri zerbait dastatuta? Memoriarik zaharrena omen. Herrialdeak ere zaporeekin gogoratzen ditugu usu, usaimenari zein lotuak. Pertsonekin ere lotu ohi ditugu gustuak. Baina uneek ere badute zaporerik, edo hala deskribatzen dira askotan, behintzat: une garratzak, mingotsak, gazi-gozaok... ARGIAko lantaldeak urteko balantzea egin du azken batzarrean: "Nolabaiteko ahozapore gozoarekin amaitu dugu 2021 urtea". Panoramarik begiratuta, balorazio arraro xamarra iruditzen zaidala aitortu diet. Azalpenekin jarraituta, argitu didate kutsu gazi eta mingotsak ere badituela zapore horrek.

Urte berezia izan da, ez dut uste esan beharra dagoenik. Pandemiak denoi eragin digu. Bai, ARGIAri ere bai, eta hau ere ez dut uste esan beharra eduki beharko genukeenik. Ez dago, ordea, ikusi nahi ez duena baino itsu hoberik.

Halere, egoerarik zailenetan ezagutzen da ondoen jendea, eta ARGIAren atzean talde indartsua dagoela berretsi dute, ondo errotutako proiektua dela eta honi esker eutsi ahal izan diotela astinduari. Aho-zapore gozoa azpimarratu dute, alde kuantitatibotik

begiratuta, proiektua diruz babesten duten kideen kopurua handitu egin delako beste urte batez, eta dibertsifikazio lerroetako diru-kontuek ere eman dutelako aurrera ateratzeko. Eta beste horrenbeste kualitatiboari begiratuta ere, isilago pasatzen diren baloreei. Hemen dago ARGIAren oinarria. Ekonomia sozial eraldatzailean oinarritutako enpresan, elkar zaintzeko formuletan, barne antolaketa demokratikoan. Horrek egiten baitu indartsu taldea. Taldeak sinesten baitu balore horietan eta horietan oinarrituta sortzen dituzten proiektuetan.

Urte gogorra izan da, inork ez du zalantzan jartzen. Baina ekipoa gustura dago ARGIAko kide izatearekin: "Ikusita beste toki askotan zer egoera jasaten ari diren... guk zorte handia dugu", azaldu du batek; "gure erabakiak hartzeko gaitasuna izatea zein garrantzitsua den ageriago geratzen da horrelakoetan", beste batek.

Zenbait erabaki hartzeak beldurra eman dezake, baina beldur handiagoa ematen du beste zenbait erabaki hartzen ari direnen mende egoiteak eta aritzeak. Garratzetik asko izan duen urteari zapore gozoarekin eman dio amaiera gure kazetaritza independenteak. ●

## Pantailak euskaraz ATXIKIMENDUA

ARGIAko lantaldeak urteko azken batzarrean erabaki du atxikimendua eta babesa ematea *Pantailak Euskaraz* ekimenak euskarazko ikus-entzunezkoen alde kaleratutako manifestuari.

Abenduaren 4an publiko egin dako testuak euskararen normalizazioan "pauso sendoak emateko" hainbat neurri proposatzen ditu ikus-entzunezkoen sektorean. Besteak beste: finantzaketa publikoa argitzea eta indartzea; EITB indartzea eta euskararen normalizatorako tresna bihurtzea, tokiko telebistekin batera; zinema eta ikus-entzunezkoen lege propioak; streaming plataformetan euskararen presentzia bermatzea, egun "hutsaren hurrengoa" baita... Manifestuan gogorazi dute Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Kartak dioena: herriarrok eskubidea dugula ikus-entzunezkoak gure hizkuntzan jasotzeko.

Manifestua 35 eragilek sustatu dute, tartean ARGIA parte den Ekimen euskal hedabideen elkarteak, eta *Pantailakeuskaraz.eus* webgunean dago osorik irakurgai.



### AGENDA

## Bidean

*Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo*

Koldo Rabadan Izagirre irakasleak liburua aurkeztuko du Zizurkilen:

🕒 **Urtarrilaren 19an**

📍 **Zizurkil** San Millan eskolan, matematikaz

## Txori Urdinak

*Espetxe sistemaren erretratu bat  
Santi Cobos presoaren bizipenen bitartez*

Zigor Olabarria Oleaga kazetariak liburua aurkeztuko du Baionan Lorentxa Beyrerekin batera, presoan kondena luzeen kontrako hitzaldi-zikloan:

🕒 **Urtarrilaren 6an** 19:00etan

📍 **Baiona** Epaiska elkarte

# TESTOSTERONA BEHERA



Mendabeltzak erdira jaisten du gorputzeko testosterona maila.

**T**estosterona gehiegi duen jendarte batean bizi gara. Feminizidio etengabea, muskulu masa erraldoiak erakusten dituen jendearen emana, oldarkortasuna eta diktadoreen pare barrabilak mahai gainean jarrita erabakiak hartzen dituzten hagintariak dira adibide garbiak.

Euskal Wikipediak dioenez, ziklopernanoperhidrofenantreno (ondo idatzi izana espero dut) egitura nagusizat duen hormona da testosterona. Batez ere arrak ekoizten du barrabiletan, baina askoz kopuru txikiagoan bada ere, baita emeak ere. Sexurako grina piztu, ilea gorputz guztian ugaritu, ahotsaren hoskera aldatu, energia fisikoa eta mentala indartu eta abar luze bat egiten du hormona horrek.

Paul J. Zakek zuzendutako taldeak 2009an argitaratu zuen lan baten arabera, testosterona altuak gizonak antisozialki jokatzeko eragiten du; norberekoia goa da, egoistagoa.

Has gaitzen bada, azkar, jendartea izorrratu besterik egiten ez duen testosterona gaindosi orokor horri aurre egiten. Nire proposamena elikadura "zaintzea" da. Hona gorputzean testosterona maila apaltzen duten janari-edari batzuk.

Mendabeltza (*Mentha spicata*) eta mendafina (*Mentha x piperita*) Turkian ikertu dituzte. Han tearekin batera menda hartzeko ohitura dago. Bada, lehenak

erdira eta bigarrenak laurdenera jaisten du gorputzeko testosterona maila.

Eragin arinagoa omen du baina errealizak (*Glycyrrhiza glabra*) ere beheratzen du testosterona. Zabaldu dezagun makilagoa.

Gizontasunarekin hain lotua dagoen alkoholak ere testosterona beheitzen du. Beraz, ar harroago egiten duela uste duenak kontuz edatearekin. Eta, pentsatzen jarrita, hurkoaren aurkako erabakiak hartzen dituzten hagintari ar horiek ez ditut txotxean edo ardo on bat hartzen imajinatzen.

Aziendak hazteko antibiotikoak eta hormonak dantzaten direnean hortik sortuko diren mozkinak (esnea, okela...) testosterona %15 inguru goibeheratzen dute, 2014an Chavarro J. E. gidari zuen ikertalde batek argitaratu zuen lanak dioenez.

Karbohidrato eta azukre finduak jan da ere berdin, testosterona gutxiago.

Sojak (*Glycine max*) ere hormona maila ahultzen du. Kontuz, beraz, miso zopa, tofua, soja esnea eta jogurta eta abarrek...

Bizarrak ahulduta, ahotsa finduta, indarrak eta kemenak apalduta eta gizenxeagoa izango den jendarte gozoago bat egiteko prest al gara? Libidoa edo sexu grina pizteko erremedioren bat aurkitu behar... ●



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

## IRAKURLEAK GALDEZKA

Egun on, Jakoba!

Durangoko azokan zure stand-ean egon nintzen, baina jendea zeneukan eta ez nuen aukerarik izan zurekin hitz egiteko. Egutegia hartu nuen, ilargiaren eta une bakoitzean egin daitekeenaren laburpena biltzen dituen (oso aproposa behar dudanerako) baina ondoko zalantzarekin geratu naiz. Sagarrondoak kimatu nahi ditut, eta uste dut orain hasi eta otsaila aldera arte dela sasoia, baina zein egunetan litzateke egokiena? Ilargia kontutan hartuta esan nahi dut... Aldez aurretik mila esker eta ondo segi!

✍ Aitor Larrinaga

Orain landaketak egiteko garaia da, otsailaren amaiera arte. Sagarrondoak kimatzeko sasoi onena izerdi berria hasten denean da. Hemen martxoa aldera. Itsasalde epelean bizi badira edo gori oso beroak badoaz otsailan ere bai. Baina hori baino lehenago egitea ez da komeni. Inausketa edo kimaketa egiteko onena ilbehera da. Egutegian ikusi ahal duzunez martxokoa 12tik 25 eguerdira arte izango da. Otsailekoa 16 eguerditik 28ra. ●



# LURTARO

## ETORKIZUNeko ELIKADURA GAURTIK ERAIKITZEKO PROIEKTUA TOLOSALDEAN



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**H**ainbat esparrutan lanean ari ziren herritarrak elkartu eta Lurtaro elkarteak sortu dute Tolosaldean. “Herrigintzatik eta elikadura burujabetzaren aldeko borroketatik datoz gutako batzuk, eta beste zenbait ekoizleak dira”, azaldu du Maddi Sarasola Eizmendi kideak. Izaera desberdinekoak izanik ere, kezka berak batu ditu: egun nagusi den elikadura sistemak, eta horrek lurraldean eta bizitzetan duen eraginak. Ardura horretatik abiatuta, eskualdeko kontsumo eta ekoizpenaren inguruko lanketa abiatu dute, eta herriz herri ekarpenak jasoz, proposamen konkretua osatzen ari dira orain. Heziketa egiteaz gain, teoria praktikara eramateko ari dira lanean.

### ESKUALDE MAILAN ERAGIN, HERRIEI EKARPENA EGINEZ

28 herriko eskualdea izanik, bazekiten erronka zaila zutela esku artean, ez baitute herrietan jada martxan dauden proiektuentzat oztopo izan nahi. Alderantziz. “Denda bat geneukan buruan, zentralizatua izanen zena, baina ikusi genuen eskualdeko herri txiki askotan ere hausnarketa betean zeudela, herriko bizitzari nola eutsi aztertzen eta maila txikiagoko proiektuak martxan jartzen”, dio. Esaterako, eskualdeko zenbait herritan ekonomatoak sortu dituzte tokiko produktuen bueltan, edo ostatueta den datxoak jartzen ari dira... Egitasmo txiki horiek guztiak biltzeko txapela izanen litzateke Lurtaro, bultzatzaileen ustez.

Proiektuari forma ematen orain ari bada ere, hiru ildo nagusi zehaztuak dituzte: kontsumo kooperatiboa eta ekoizpen kolektiboa bultzatzea dira lehen bi hankak, eta biltegiarena, hirugarrena. “Dendaz harago, biltegi partekatu bat egitea



da ideia, eskaerak egiteko bide errazago bat lortzeko”. Hain zuzen, ekoizle txikien arazoetako bat izaten da banaketa, toki askotatik jasotzen dituzten eskaerei erantzuteak lan handia eskatzen baitie. Produktuen biltokiak, ekoizleei eta herrietako ekonomato, denda nahiz kontsumitzaileei emango lizkieke erraztasunak.

### TRANSIZIORAKO BIDE

Etorkizuneko elikadura osasuntsu baten oinarriak finkatu dituzte Lurtaroko kideek beren proposamenean, beti ere, elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren gakoetan: “Badirudi eredu oso perfektuaz ari garela, baina gu epe luzera begira ari gara hizketan, horrela behar duela uste dugulako. Eta jakinda trantsiziorako proposamenak ere behar direla”. Trantsizio horretako proiektu gisa ulertzen dute haiena ere, baina kontzeptuak eta oinarriak ongi finkatu nahi izan dituzte: “Gaur egungo terminologia nahasketak kezkatzen gaitu; badirudi dena dela Km0, dena dela jasagarria...”.

Urriari hasi ziren elkarteko kideak herriz herri proiektua aurkezten eta ekarpenak jasotzen, eta pozik daude orain arte jasotako erantzunarekin. “Prozesua bera polita ari da izaten”, dio Sarasolak. Eskualdeko ekoizleekin eta tokiko erakundeekin ere biltzen ari dira. Urte berriarekin batera, errondarekin amaitu eta kooperatiba sortzeko lan saioei ekitea aurreikusten dute. ●

## EUSKAL HERRIKO AGENDA

[www.bizibaratzea.eus](http://www.bizibaratzea.eus)



### Sendabelarrek dakitena

Garbiñe Larreak liburua aurkezteaz gain sendabelarrei buruzko hitzaldia emango du.

🕒 **Urtarrilak 14**

📍 **Zizurkil** Udal aretoan.



### Ilargia eta landareak

Jakoba Errekondok ilargian oinarritutako egutegia aurkeztu eta gaiari buruzko hitzaldia emango du.

🕒 **Urtarrilak 21** 19:00etan

📍 **Zizurkil** Iriarte kultur etxean.

### Zure herrian liburu honen hitzaldia antolatu nahi?

Garbiñe Larreak sendabelarrez atera duen liburuari buruzko hitzaldia antolatzeko, idatzi [bizibaratzea@bizibaratzea.eus](mailto:bizibaratzea@bizibaratzea.eus) helbidera eta berehala jarriko gara zurekin harremanetan.

# “Poesia hitzekin beste zerbait egiteko lekua dela sinesten dut”

Itziar Ugarte Irizar

Absentziaren eta presentziaren, memoriaren eta bizitzaren uretan murgiltzen du irakurlea Itziar Ugarte Irizarren (Oñati, 1995) *Gu gabe ere* (Susa, 2021) lehen poema-liburuak. ITU literatur bandako kide izandako aspaldiko lagun bi berriz elkartu eta poesiaz aritzeko aitzakia aproposa izan da elkarrizketa.

 PERU IPARRAGIRRE

**Louise Glücken aipu batek zabaltzen du liburua: “Gauza ederrak, esan zuen, / aurrean dauzkazu, edo atzean agian; / zaila da ziur egotea. / Eta gainera, erantsi zuen, ba al da alderik?”**

Dena dago hor, etengabeko txirikordatzetxe horretan. Zure oraina ere, bihar oroitzapena bihurtzen den hori, badago gauza handiagoetan sostengatuta, memoria kolektiboagoetan eta baldintza handiagoek baldintzatuta. Aipuak esaten du “zaila da ziur egotea”, eta badirudi beste zatia dela garrantzitsuena, baina niretzat ziurgabetasunak garrantzia handia du. Mariano Peyrouk esaten du ziurgabetasuna eta egunerokoan inguratzen gaituzten hainbat misterio onartzen ere irakasten digula poesiak, eta horrek ematen dizu arnasa bat, gauzak beren horretan zureganatzeko. Liburuan ar-

datz oso garrantzitsua da memoriarena, baina ez iraganari lotutakoa, baizik eta orainetik ulertua eta etorkizunari lotutakoa.

Badago momentu oso inportante bat liburuan: gure bi aitona eta amona bat oso jarraian hil ziren, eta momentu intentsua izan zen niretzat. Beste abiadura eta bizitasun batean nindoanez talka handia ekarri zuen. Oso gertutik sentitu nuen gainbehera, eta konturatu eta hor sartzeko aski abiadura motelean zetorrela nabaritu nuen. “Hor egon nahi nuen” esaten du poema batek, eta hor egoteko eta kontzientzia hartzeko balio izan zidan. Ikusi nuen pertsona memoria galtzen doanean nola doan galtzen, nire ustez, baita izana ere. Hortik abiatzen da haiekin eta haien belaunaldiarekin izandako elkarrizketa bat, arakatzeko haiena den zerk egin duen nire mundu

ikuskerara. Hor murgildu eta odol loturaz aparte zerk batzen eta zerk bereizten ulertzea izan da ariketa, ulertzea zergatik izan den haien bizimodua izan den bezalakoa, zein harreman izan duen haien inguruarekin, zein harreman hizkuntzarekin. Absentzia fisikoa egon arren zuk jarraitzen duzu marko konpartitu hori zamatzan. Haien memoria kolektiboa zure parte ere bada, eta zure kontzientzia individuala memoria kolektibo askoren gurutzaketan osatzen da. Horregatik, nahiz eta memoria partikular bat galdu beste batzuek jarraitzen dute. Niretzat, galdera asko pizteko momentua izan zen hori: memoriaren inguruko kezka hori, eta ea zer egiten dugun gure denborarekin, gure garaiarekin... Orduko ohar eta irudi asko dauzkat eta horietatik abiatuz asko idatzi dut liburua, nahiz eta ez bakarrik hortik. Horrela



ulertzen dut nik liburua, baina oso posible da beste batek, eta hori ere polita da, beste leku batetik ulertzea.

**Gurea ez den baina gu ere egiten gaituen mundu hori ulertzeko bulkada bat dago, baina baita guk zer uzten dugun aztertzekoa ere.**

Bai, hori da. Kontzientzia hartze bat da, batez ere. Zer egiten duzun aurretik beste jende asko igaro den lekua hartzean. Oroitzapenak horretarako oso material

emankorra dira, eta baita beste gauza batzuetaz pentsatzeko ere. Sarrionandiak testu batean aipatzen zuen, eta asko gustatzen zait ideia, nola oroitzapen indibidualena ere lotuta dagoen parte garen gizarteko bizitza material eta moralarekin. Horrek egiten du zure oroitzapenik intimoena den hori ere konpartigarri. Niretzat bazen liburuarekin lotutako kezketako bat hain eremu gertukoari begira idatzitakoa izanik –ama, aita, amona aipatzean–nire esperientzia

gainbaloratu gabe transzendentzia pixka bat izan ezala, eta ea hor irakurleak lekua topatuko zuen testuarekin bere esperientzia izateko. Liburua nola azaldu pentsatzen hasi ginenean, asko jotzen nuen momentu hartara eta ideia batzuetara, baina Leire Lopez editoreak esaten zuen garai hartako poemak ez direla horrenbeste, eta beste gauza batzuk ere badaudela. Eta egia da, badago gazte baten ahotsa, bere garaia ahal beste zuktzeko irrika, dastatzekoa. Plazer eta bizitasun horrek ere badauka bere lekua liburuan.

**Irudiek pisu handia dute poemetan, irudi zehatzak dira oro har eta poemetako hizkuntza bera ere zehatza da, nabari da hitzaren bueltako kezka.**

Poesia hitzekin beste zerbait egiteko lekua dela sinesten dut. Lengoiairekin egunerokoan duen funtzio komunikatiboa ez den zerbait egiteko, harago eramateko lekua. Hautua izan da hitz soileik kontatzea normalean kontatzen dutena baino gehiago. Askotariko poesia existitzen da, baina badago ustez poetikoa denaren gaineko uste oker bat, poesiak behar duela tonu hanpatua eta hizkuntza korapilatsua. Ez dakit den hautu bat edo idazterakoan gaina hartzen duen ahots bat, baina puntu batetik aurrera kontzientzia hartu nuen hizkuntza garden horrek balio zidala kontatu nahi nuenerako. *Berrian* aipatzen zuen Ruper Ordorikak aurrekoan: “Kantu irudiz xumeetara ailegatzeko, asko behar da xehatu”, eta lan horrek erakartzen nau, nola egin hitz soilekin dagoena ikusgarri. Poema batzuk berridazterakoan, distira gehiago atera guran, kargatzen eta tonua igotzen hasitakoan ikusten nuen hasten zela erortzen poema. Muga horretan aritu naiz, nola lortu lengoiairekin beste zerbait modu soilean egitea.

**Badago lexiko bat oso propioa. Iruditu zait batzuetan hizkuntzak berak eramaten duela oroitzapen batzuetara.**

*Intxaurrak zuritzen* poeman agertzen da nola amonak esaten zuen “umea egin zonan, kaka egin zonan”. Zenbat gauza egon daitezkeen horren atzean. Garai hartako emakume batek esaten dizu umea egitea edo ez egitea ez zela hautu bat, baizik eta berez zettorrena, bere bizitzari forma konkretu bat ematen ziona. Berak ez zuen eduki guk eduki dugun sarrera, nahi bada, ikasketa batzuetara,

adibidez. Baina euren gogoeta zein aberatsa zen hori dena gabe ere, nola zuten sekulako ganbara betea, bai hizkuntzarena, bai esperientzia propioarena. *Zuloa leiho* poeman ere beste emakume oso heldu baten ahotsa ageri da, eta kontatzeko duen gaitasuna eta hitzak ekartzeari interesatzen zait. Lengoaiaren birtartez egiten dugu lotura inguruarekin, eta hor informazio asko egon daiteke.

**Kea poeman agertzen da idatzi beharrean idazteaz hitz egitearen inguruko kezka. Aspalditik ari zara idazten, baina orain argitaratu duzu liburua, nola bizi duzu zure idazletza?**

Bada gauza bat buelta asko eman dizkiodana. Inportantea da idazten duenarentzat idazketaz pentsatzea, erabiltzen duzun tresna horretaz hausnartzea. Badaude liburuan idazteari buruzko poema gehiago ere, eta *Aitarek kantuak* poeman ere sormen lanari buruzko kezka hori agertzen da, nola bizi egiten dugun hau. *Hitzen gogoa* poeman galdetzen da “zerk ematen dio zentzua zeri”?

Nola bizi dudana? Zarata horrekin, batzuetan. Boladaka ateratzen ditut idazteko tarreak eta denbora noanean irakurketekin desfasatuta edo idazteko denborarik atera gabe sortzen dit zarata pittin bat. ITUko taldean ere edukitzen genuen mamu hori atzetik jarraika. Oso gertu sentitzen dut hori, nirekin daramat “*you should be writing*” (“idazten behar zenuke”) hori. Baina zergatik? Nor dago honen zain? Tentsio horrekin bizi dut.

Pozik nago nire buruarekin ausardia eta konfiantza hartu, lana egin eta hemen gaudelako. Orain determinazio gehiago daukat eta honi, idazteari eta irakurtzeari, denbora eskaini nahi diot, lekua egin nire eguneroko bizimoduan. Idazmenari oso lotutako tarte bat izan dut eta asko disfrutatutako tarte bat izan dut eta asko disfrutatutako tarte bat izan dut. Hala ere, zaila da gero horri eustea, idazten egiten dut lan eta etxera bueltatu eta berriaz ordenagailu aurrean eta paper artean jartzea nekagarria da batzuetan. Zorritzarrez, eguneko momentu argitsuena ez dizkiozu horri eskaintzen. Auskalo zer esango dudana hemendik hilabete batzuetara, baina momentu honetan horretarako gogoa daukat.

**Nagore Legarretaren irudi batek jantzten du azala. Badu argitasuna kolorean baina baita itzal batzuk ere, erraz egin daitezke barrukoarekin loturak. Nondik sortu zen ideia?**  
Oso berandura arte ez nintzen jarri pen-



tsatzen azala eta bestelako elementuetan, eta gomendatu zidaten gustuko artista edo irudigile batengana jotzeko. Poema asko oroitzapenak dira, momentuak jasotzen dira, eta ikusten nuen argazki bat aproposa izan zitekeela azalerako, baina ez nuen nahi familia artxibo batetik hartutakoa. Argazkiaren teknikak estimu-

“Absentzia  
fisikoa egon arren  
zuk jarraitzen duzu  
marko konpartitu bat  
zamatzen”

latzen ninduen eta Nagoreri egin nion proposamena. Bere lanetik erakargarria egiten zait oso irudi lausoak direla, eta kamera estenoapeikoaren teknika hori, denborarekin inprimatzen diren irudiak ere. Nik ezer larregi esan gabe abiatu ginen, berari poemen irakurketak iradokitzen zion horren bila. Egiaitak Oñatira *roadtrip* bat egitea proposatu zidan, bidean geldialdiak eginez, hartuko genituela bi karrete eta hortik aterako zela azala.

Bere lan egiteko prozesuan asko uzten du zoria sartzen Nagorek, eta ederra

iruditzen zait konfiantza hori, gauzak uztea agertzen zuten larregi inposatu gabe. Abiapuntu moduan negutegi bat neukan nik buruan, poemetako batean agertzen dena. Azkenean handik hasi ginen eta fuertea izan zen, zeren heldu eta Nagorek berehala esan zuen “bueno, hau da lekua, bi karreteak hemen botako ditugu”. Nonbaitetik ateratzen ari den norbait eta bidegurutze bat zeukan azpimarratuta irakurketatik berak, eta probak egiten hasi ginen.

Oso udazken goiz ederra izan zen, eguzkitsua, eta pasa genuen hor tarte bat irudi bila. Gero, geruza moduan gainean eskaneatutako kristal batzuk jarri zizkion. Pozik nago emaitzarekin.

Niretzat oso polita da ikustea zein oihartzun sortzen diren poemen eta azalaren artean. Oso libreka da, bakoitzak ikusten ditu bere gauzak. Lagun batek ikusi zuenean azala zeharkatzen duen marra urdina –ni jabetu gabe nengo– Super-8arekin grabatzean batzuetan ateratzen den marra urdina etorri zitzaion gogora. Ederra iruditu zitzaidan, Super-8a etxe giroa grabatzeko erabili izan baita askotan, eta badago horrelako joko bat poemetan, gertuko inguru hori begiratze-ko era bat. Askok gustatu zait jendeak esan duenean liburu argitsua topatu duela, ahalegina egin da tonu hori gailentzeko, eta azaleko horitasun izpi horiek uste dut jaso ahal dutela hori.

### Hasieratik zenuen poema hauek liburu batean biltzeko asmoa?

Bi erritmo egon dira liburua sortzeko prozesuan. Batetik, lau edo bost urte biltzen joan naiz poemak, oso tantaka joan direnak pila osatzen. Ez behintzat inongo forma baten edo proiektu baten perspektibarekin. Orduko bizipenak eta apunteak izan dira poemetarako musa. Gero egon da beste erritmo bat, azken urtekoa. Urte hasieran hasi ginen liburuaren ideia presenteago egiten eta hor neukan materiala aztertzen. Ez nuen nahi neuzkan poema guztien bilduma bat izatea, baizik eta zentzu batekin nahi nuen eraiki liburua. Perspektiba horrekin ere sortu dira poemak.

Amailerakoa estuagoa izan da baina mordo ikasi dut. Gauzei arrazoiak eta diskurtsoak bilatu guran ibili naiz, ea zer dagoen poemen atzealdean, zer gai, liburua nondik eraiki ikusteko. Momentu batean dena hasten zara zalantzan jartzen. Poesia ere bada dena azalduta nahi izate horretatik aldentzea, eta tal-ka horretan gauza batzuekin borrokan aritu naiz.

### Poemak bata bestearen ostean doaz, ez dago egitura espliziturik, egon da beste moduren batean ordenatzeko tentaziorik?

Garrantzitsua zen niretzat liburua eraikitzea, eta ez izatea neuzkan poemak hartu eta artxibo bakarrean itsastea. Hori da zailena egin zaidan gauzetako bat, begiratzea ea nola funtzionatu ahal zuten poemek, liburuko kontakizuna nola ordenatu jakitea. Egin nuen proba bat hiru ataletan banatzekoa, eta balio izan zidan konturatzeko ez zuela behar atalik. Oso aldamaia behartua zen, poemek behar ez zutena. Oihartzun asko daude poemen artean, eta egituratzeko hori apurtzen zuen. Badago ahots bat bil-

tzen duena dena, eta nahiko erraz egiten da jauzi poema batetik bestera. Erronka izan zen onartzea ez zuela behar atalik eta nola osatu continuum hori, nola modulatu mota bateko eta besteko poemen segida testurak ateratzeko kontakizunari. Misterio bat da askotan, ez dakizu oso ondo non edukiko duen distira gehien poemak. Lehenengo poema, *Itsaso aurrean ama*, adibidez, oso poema txikia da eta barruan zegoen hasiera batean, baina lagun baten gomendioz bilakatu zen lehen poema. Hor topatu du hazteko lekua, ziur aski barruan estaliago gertuko litzatekeelako. Misterio handi bat da, eta kasu horretan niretzat oso baliagarriak dira liburua irakurri dutenekin izandako elkarrizketak.

“Asmatu beharko dugu nola egin tokia pilatzen goazen lekuei eta jendeari”

### Nor izan duzu horretan bidelagun?

Editorea, Susako beste jende bat eta literatura munduko gertuko lagunak izan dira irakurleak, eta prozesuan oso garrantzitsua izan da niretzat Iñigo Astiz. Poema truke dezentekoa izaten dugu, eta horrek mantentzen zaitu tentsioan, bizirik mantentzen du testura itzuli eta zorroztu nahi hori. Berak esaten duen moduan, sua piztuta mantentzen du. Pila bat ikasi dut truke horretan eta beste irakurle batzuekin egindako trukeetan. Iruditzen zait zortea izan dudala eduki dudalako inguruan jendea lanak erakusteko eta partekatzeko. ITU Bandaren ga-

rietan gauzak batera egiteko aukera ere izan genuen. Jende mordo batek idazten du eta denek ez dute aukera hori. Ez bakarrik argitaratzeari begira, baizik eta hobetzeari eta partekatzeari begira ere. Aberasgarria da frontoi lan hori.

### Liburua argitsua eta irekia da zentzu askotan, edertasunak badu lekua, baina argitasun hori zeharkatzen dute itzalak eta biolentzia ere ageri dira.

Bai. Uste dut badela gauza garrantzitsu bat liburuan. “Gabe ere” horretan, adibidez. Gerora konturatu naiz absentsia asko dagoela liburuan, atzean geratu diren lekuengatik, jendearengatik, harremanengatik, momentuengatik... eta aldi berean badago metaketaren ideia hori, tentsio hori. Galdu eta batu. Galdutako hori ere egiten da pila, ez dago besterik. Jarrera argitsu batekin nahi nuen hartu hori, kontzientzia hartu, hortaz jabetu, ospatu hori ere. Asmatu beharko dugu nola egin tokia pilatzen goazen leku eta jende horiei.

Uneetara bueltatuta, gauza horiek ospatu eta disfrutatzeko borondatea dago, efimeroa den horri lekua eta aitortza egitekoa. Plazera ere badago liburuan, askotarikoa, baina gauza konkretuetara etorrira, horren azpiko mekanismo gatazkatsuak ere agertzen dira. Plazeretik biolentziarako pausoa oso erraz egin daiteke, Iñigok planteatzen zuen hori *Berrian* egindako elkarrizketan, oso samur zeharkatzen dela batetik bestera, eta gauza horien hauskortasuna badago liburuan.

Ez da berdina plazera emakume gorputz batean edo beste gorputz batean. Gauza onak eta ederrak ospatu, orduan, baina ahaztu gabe zeren gainean eraikitzen den hori, eta horrek ze orden eta ze oinaze daramatzen aurretik. ●



## HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

“Funtsezkoa ikusezina da begientzat”  
Antoine de Saint-Exupéry



# Noa Eshkolen mugimendu notazioa, Sharon Lockharten begiradaren bitartez

Mugimendua deskonposatzen bide-urratzailea izan zen Eadweard Muybridge argazkilari eta ikertzaile britaniarra. Argazki segiden bitartez lasterketa-zaldien mugimendua era zehatzean jaso ahal izan zuen lehenengoz, eta 1887. urtean *Animal Locomotion* liburua argitaratu zuen, gizakien eta animalien mugimenduak xeheki eta modu analitikoan batzen dituen liburu aitzindaria. Ikerketa hari segika, Noa Eshkol dantzari eta koreografo israeldarrak gorputz mugimenduaren notazioaren ikerketari eskaini zion bizitza. Egun, bere lanaren emaitza ikusgai dago Bilboko Guggenheim museoan, Sharon Lockhart artistak egindako ikerketari esker.

 JONE ALAITZ URIARTE

**N**oa Eshkol dantzariak (Kibbutz Degania Bet, 1924-Holon 2007) pianoa, dantza eta gorputzaren kulturako ikasketak egin zituen AEBetan eta Israelen. Musikan erabiltzen den notazioa –pieza musikalak grafikoki adierazteko idazketa sistema– dantzara eraman nahi izan zuen, gorputzaren mugimendu aberats eta konplexuen konposizioak eta konbinazioak garatu ahal izateko. Bere izena daraman dantza-eskola sortu zuen Israelen; haren filosofia zen dantza bere horretan dela artea, eta beraz, eszenografiarik, jantzirik eta musikarik gabe praktikatu beharrekoa. Dantza minimala praktikatzeko zuten eskolan, atentzioa gorputzak sor ditzakeen mugimenduetan jarritz eta horiek idatziz. Ikerketa horretatik abiatuta, 50eko hamarkadan, Avraham Wachman arkitektoarekin batera, sistema garatu zuen: Eshkol-Wachman Mugimenduaren Notazioa. Sistema horrek sinboloen eta zenbakien konbina-

zioa erabiltzen du edozein gorputz-adarren mugimendua definitzeko, eta hori da Eshkolen dantzaren praktikaren oinarria.

2008. urtean, Sharon Lockhart (Norwood, AEB, 1964) artista estatubatuarra Israelera joan zen egonaldi artistiko bat egitera. Noa Eshkolen dantza-eskola aurkitu zuen eta haren artxiboarekin egin zuen topo. Ahanzturan galdutako artxiboan Eshkolek urteetan egindako notazioak, apunteak eta alanbrezko hainbat esfera aurkitu zituen. Eshkol urte bete lehenago hil bazen ere, haren ikasleek –adin nagusiko dantzari profesionalak eta belaunaldi gazteagokoak– dantza praktikatzeko jarraitzen zuten, astean bost egunez eta egunean bost orduz, oraindik ere haien irakasle izandakoaren diziplina zorrotzari men eginez. Lockhartek segituan ulertu zuen zerbait egin behar zuela eskola hartako dantzariarekin eta artxibo hartan aurkitutako materialarekin. Lockharten praktika artistikoaren arda-

tza beti izan da komunitate ezberdinekin lan egitea eta horien bizipenak eta memoriak erretratatzeko. Beraz, hemen, bazuen bilatzen zuena.

Esperientzia horretatik abiatuz, 2011. urtean, egun Bilboko Guggenheim Museoan ikusgai dagoen *Eshkol-Wachman Mugimendu Notazioko Lau Ariketa* bideo-instalazioa egin zuen. Pantaila erraldoi batean lau dantza ariketa ikus ditzakegu, bata besteari jarraian. Bideoetan eszenografia xume bat planteatzen da, eta protagonista bakarra ageri da: Ruti Sela dantzaria. Selak, Eshkolen dantzari laguntzailea izan zena 1969tik hil arte, dantza-mugimendu neurtuak eta garbiak egiten ditu bideoan, publikoari klase tutorial bat emango balio bezala. Dantzariak giza-gorputzak egin ditzakeen mugimendu guztiak exekutatzeko dituzten bideo motz horietan, mugimendu aseptiko eta keinu estoiko batez, programaturiko makina bat balitz bezala. Dan-





Eshkol-Wachman Mugimendu Notazioko Lau Ariketa, 2011.

SHARON LOCKHART

tzariak eszenografia osatzen duten gris koloreko lau kubo formako pieza artean egiten du dantza, eta egitura arkitektoniko horiek kokapenez aldatzen dira bideo batetik bestera. Lau bideoetan denak du dimentsio neurtu eta iraunkorra.

Bideo-instalazioaz gain, Lockhartek Eshkolen estudioan aurkitu zituen alanbredun esferen argazkiak aurkezten ditu neurri handian inprimatuta. Esfera zirkular horiek eskulturak diruditen arren, koreografoak bere ikerketak egiteko tresna gisa erabiltzen zituen, edozein funtzio artistikotik at. Mugimenduen mapak ziren, gorputzak mugimenduan daudenean ardatza non kokatzen den ikusteko eta segidan datorren mugimendua idazteko gailu gisa erabiltzen zituen. Hala eta guztiz ere, Eshkol ez zen dantza-notazioa egiten bakarria; nazioarteko dantza garaikideko figura goraipatuenetako batzuk –hala nola, Analivia Cordeirok edo Merce Cunninghamek–

beren koreografietako asko “dantza notazioak” izenburu esplizituarekin ere izendatu zituzten.

Lockhartek duen ekoizpen-artistiko anitza eta esanguratsua kontuan izanda, museoko Film&Video espazioan aurkezten den proiektu hau motz gera liteke artistaren jarraitzaile direnentzako; batez ere, bertan erakusten diren argazkiak 2020an Tabakalerako *Cybernetics of the Poor* erakusketan era ikusgai egon zirelako. Lockhartek, nagusiki, zinema eta argazkilaritza lantzen ditu eta ibilbide luzeko artista da. 2005ean Los Angeleseko bizitza frenetikoa albo batera utzi eta Kaliforniako mendialdera lekualdatu zen. Sierra Nevadako mendilerroaren oinetan, hango herrixketako umeak erretratatu zituen; estudioko-argazkiak eginez bertako umeen argazki galeria bat egin zuen, baita haien jolasak erretratatu eta urtaro bakoitzean natura nola aldatzen den irudiz erakutsiz. *Pine*

*Flat* izeneko lan horrekin, urte hartan artistari bakarkako erakusketa egitea eskaini zioten Bilboko Rekalde Aretoan, Chus Martínez komisarioak gidatua.

Ikus-entzunezko piezetan denborarekin ezartzen duen harremana eta komunitate ezberdinekin –izan langileak, gimnastak, nerabeak edo militarrik– lan egiteko modua bere obraren ezaugarri garrantzitsuenetarikoak dira. *Lunch Break* (2008) filmean, Maine estatuko ontziola batean lan egiten duten 42 langileren otordua erretratatu du. 35mm-tan grabatutako pelikulan, bazkaltzeko etenaldia ere jasotzen da, eta jarduera ugaritan (irakurtzen, lo egiten, hitz egiten) aritzen diren langileak ikusi daitezke. *No-no Ikebana* eta *Goshogaoka* lanek ere badute beren interesa. Beraz, izan bedi Guggenheimeko erakusketa hau Noa Eshkolen eta Sharon Lockhart lanen inguruan jakin-mina piztarazteko -edo areagotzeko- aitzakia. ●



## LIBURUA

# Egin hazka!



DANI BLANCO

## EZ DAKIT ZERTAZ ARI ZAREN

ANA MALAGON

ELKAR, 2021

### AMAIA ALVAREZ URIA

**K**ris, kris, kris... Izenburuan hazka eginez gero ikusiko dugu egunero-ko elkarrizketetatik ateratako formulak hautatzen dituela Ana Malagonek: *Lasai, ez da ezer gertatzen* (2014), *Gelditu zaitezte gurekin* (2017) eta *Ez dakit zertaz ari zaren* (2021). Gauza bat esan eta beste bat adierazi ohi dute. Izan ere, errealitateak geruzak ditu eta zauriak, hutsuneak eta zailtasunak ezkutatzen ditu begiratu nahi ez edo ikusi ezin duenarentzat.

Kris, kris, kris... Azaleko irudiari hazka eginez *El hoyo* pelikula etorri zaigu burura. Bakarrik gaudela eta aurrera egin beharra gogorazten digute biek. Narrazio hauetan ahots narratiboak azazkalez arrakalatuko ditu familiaren, bikote harremanen, lan munduaren eta hezkuntzaren lehen geruzak. Bizitzaren laugarren hamarkadan sartuta dagoen

Malagonek garai horretako banaketak, prekaritatea, bakardadea eta galerak ditu lehengai hamabost ipuinotan. Beraz, badakit zertaz ari zaren, Ana: bizitzaren kolpeez, doluaz eta berriro jaikitze beharraz. Baina umorea agertuko zaigu, garratz, izkinaren bueltan, bide-lagun.

Kris, kris, kris... liburuaren soinu banda dugu jarraian. *Agur Jesusen ama* kantuaekin hasi (Anari etorri zait burura) eta *There is a light that never goes out*-ekin (The Smith) amaitzen da *playlist*-a. Bere hiru liburuetan musikak bai forman bai edukian du eragina, beste pertsonaia bat izatera heltzeraino.


Kris, kris, kris... Egitura dator segidan. Mikroipuinekin hasi zen lehen bilduman, paragrafo luze ziren ipuinekin, eta pixkanaka luzatzen joan dira testuak, bost-bat orriko luzerakoak

izan arte azken lanean. Hala ere, trinkotasuna eta intentsitatea dira Malagonen testuen ezaugarriak; paragrafo azpimarragarriak topatu ditut han eta hemen, bost lerrotan izaera, giro eta ziztada multzo bat josten abila baita egilea: "Orduan konturatu gara amaitu dela ikuskizuna, zuloan dagoela izeba eta putzu batean gu".

Kris, kris, kris... Bereziki gustatu zaizkit lotura afektiboan gaineko go-goeta egiten duten (*Axola behar zaio, baina bere neurrian; Gertuko familia*), ama-alaba harremanean ausartzen diren (*Gaueko txanda; Mina*), eta prekaritatea eta absurdoa uztartzen dituzten (*Larrialdi zerbitzua; Klaustroa*) ipuinak.

Kris, kris, kris... Azazkalekin egunero-koari berniza kendu eta atzean zer dagoen begiratu nahi dutenentzako liburua. ●





MUSIKA

# Sabeletik eta burutik



## GARUN TA EZTARRI BANANAS

HAINBAT DISKOETXE, 2021

### IKER BARANDIARAN

**P**asa dira makina bat urte ordutik: Bergarako Kartzela Zaharrean – Gaztetxean- bi musika taldek itzelezko emanaldia eskaini zuten hardcorea oinarri; gau gogoangarria izan zen, ederra. Bada, kontzertu ostean bi taldeetako kideen arteko elkarrizketa, pozarren, hauxe: “Nolatan jarri diozue Flyshit izena taldeari?”, batek. “Eta zuek, Spermbirds?”, besteak. Zozoak beleari ipurbeltz. Izen xeledredunak biak ala biak, baina hamarkadak pasata sasoi betean jarraitu eta gero eta gehiago post-hardcorean arakatu eta eroso mugitzen direnak.

Bananas ere izen xelebrea da erabat, baina Musikazuzeneaneko lagunei kasu eginez asteon eskuratu dut diskoa, eta a ze sorpresa ederra! Ezer gutxi dakit

oraindik disko luze hau aurkeztu berri duten taldekideez (aurretik lan laburrago bat kaleratu zutela, hain justu), baina mimoz eta gogoz lantzen dute emaitza.

Diskoa zabaltzen duen *Beste behin*-ek ezinbestez ekarri dit Rites Of Spring gogora: malenkonia sarkor bezain indartsua, post-hardcorearen esentzia. *Zenbaterainor*-ek emo-an murgilduta pentsarazten dit noraino helduko den abeslariaren ahotsa: kantu honek (eta gainontzekoek) bietatik baitu, itsaskorretik eta garratzetik. *Zaldi beltz* batek baditu riff gardenak eta Dut taldeko Josebaren pareko urgutzia. *Bideharri*, melodia beti aldarri, tempo eta erritmo aldagarri da, aberatsa. *Zama* are eta jostalariagoa, instrumental jokoak gehiago

eta gehiago nabarmenduta eta Lisabö gogoan. *Ulia*-k darama aldean Leatherface handien *Dead industrial atmosphere* gaurkotuaren arima. *Lehen buru gerra* da, apokalipsiaren aurretik, pop-etik gogoz edaten duen eta ostean rockero bilakatzen den pieza ederra. Eta, azkenik, *Kontra edo alde* da, ezbairik gabe, erritmo biziz jantzitako pop garratzua.

Bananaseko kideek jakin dute irmotasuna, erritmo aberatsak, melodia barra-barra, gainetik kendu ezin (ezta nahi) dugun malenkonia pizgarria, irudimena, garratasuna, urgutzia eta indarra batzen, kontrastez beteriko emaitza aberatsean. Izan ere, eskola zaharreko post-hardcorearen esentzia dauka puripurian, eta are kolore gehiagoz zipriztinduta. ●



# Artisau erupzioa

 MARTA SENDIU ZULAIKA  ANIA RIO TARACIDO

**E**ztanda egin zuen La Palmako sumendiak eta orduz geroztik ez du su etenik izan. Irlako erupzioa baino lehenago leherrarazi zen Gasteizko Sumendi espazio autogestionatua eta harekin batera Judimendi auzoko berpizkunde kulturala. Lau urte pasa dira jada haren jaiotzatik, bien bitartean tailerrak, Scape Room-a, kontzertuak, bazkariak, txokolatadak eta era askotako ekintzak eraman dituzte aurrera, eta egunotan *Artiston* azoka antolatu dute.

Gabonetako kontsumo basatiaren aurrean beste kontsumo eredu kontziente eta gertuagoko bati egin nahi izan diote tokia. Benito Ginea kaleko lokalak abenduaren 18 eta 19an eta urtarrilaren 2an askotariko sortzaileak bilduko ditu, eskaintza zabal eta berezi batekin.

Azokaren xedea kontsumo eredu nagusiaren alternatiba bat eskaintzea da, beti ere, arte mota askori tokia eginez. Hori dela eta, aurtengo azokan era guztietako postuak izan dituzte eta izango dituzte.

Bertaratutakoek modan dauden Tote Bag-ak eskuratzeko beta izan dute, harekin batera produktu naturalekin egindako xaboiak, olioak eta kremak ere aurkitu dituzte. Ezin ziren falta mila koloretako makrame korapiloekin egindako lepokoak eta pultserak, ezta zeramikazko belarritakoak ere.

Gasteizko eta Euskal Herriko edozein puntatik gerturatutako artisauak elkartu dira Sumendin, eta haietako bat da *Lu*. *Estampatuak* ezizena duen sortzailea. Haren postua Tote Bag-ez

## ARTISTON AZOKA

**NOIZ:** abenduaren 18 eta 19an eta urtarrilaren 2an

**NON:** Gasteizko Sumendi



gain ilustrazioz jositako koaderno, egutegiz eta postalez osatua zegoen. Ania Saenz de Buruagak ere bazuen bere tokitxo, ilustratzailea eta marketingean aditua da, emakumea ardatz nagusi duten koadro eta posterren egilea. Haren ondoan, Saul Vara artista, zuri beltzezko argazkien bidez eta egunerokotasuneko oinarrizko elementuei argazkiak eginez sormena lantzen duen artista. Argazkiak erabiliz hainbat material ekoizten ditu, imanak edo koadroak, esaterako.

Abenduko azokarekin batera urtarrileko azokari emango diote ongi etorria Judimendiko auzokideek urte berriari. Sumendi auzora zabalduko da berriro ere V. edizioarekin, auzotarrek auzotarrentzako sorturiko espazioak labaz gainezka jarrai dezan. ●



## Puzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA ARANTXA MENDIHARATEK, PROZESU DELIBERATIBOEN KUDEATZAILEAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



## Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

			9		2	7	6	3
7				1		2	9	4
6				4				
			6			1	2	9
		6				8		
8	7	2			1			
				7				2
2	4	7		3				8
3	1	5	2		8			

ERRAZA


5	9			7				6
	4	6		9				
				5	6	8		2
	7		2					
1		4				2		5
					1		4	
4		9	6	8				
				2		4	5	
	2			1			3	9

ZAILA

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Azala osatu gabe errundako arrautza.
2. Ur-korronte naturala.
3. Arre, gris.
4. Buruko apaingarria.
5. Saski handi.



## Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				I	L	A	R	I
2	L				A	D	U	N
3	A	Z				G	A	I
4	J	A	U				X	E
5	E	L	K	A				A
6	D	E	M	O	N			

## EBAZPENAK

ERRAZA

3	1	5	2	6	8	9	4	7
2	4	7	1	3	9	6	5	8
9	6	8	4	7	5	3	1	2
8	7	2	5	9	1	4	3	6
1	9	6	3	2	4	8	7	5
5	3	4	6	8	7	1	2	9
6	2	9	7	4	3	3	5	8
7	5	3	8	1	6	2	9	4
4	8	1	9	5	2	7	6	3

ZAILA

7	2	8	5	1	4	6	3	9
6	3	1	9	2	7	4	5	8
4	5	9	6	8	3	7	2	1
2	8	5	7	6	1	9	4	3
1	6	4	8	3	9	2	7	5
9	7	3	2	4	5	1	8	6
3	1	7	4	5	6	8	9	2
8	4	6	3	9	2	5	1	7
5	9	2	1	7	8	3	6	4

**PUZLEA:** "IGURE GIZARTEAN ONGI EZ DOAN GAUZETAKO BAT DA, EZ DUGULA DELIBERATZEKO ESPAZIORIK, EZTA ELKARRIKETARAKO ERE".  
**5X5:** 1. PINTZ, 2. IBAIA, 3. NABAR, 4. TIARA, 5. ZARAN.  
**HIZKI BERAK:** 1. ERITLARI, 2. LETRADUN, 3. AZTERGAI, 4. JAURETXE, 5. ELKARTEA, 6. DEMONTRE.

# Tamara Clavería

IJITOA ETA FEMINISTA



## “DESIJITOTZEA”

“17 urte nituela hasi nintzen boluntario ijito elkarteetan. Eta eskola-graduata 21 nituenean lortu nuen. Ohikoa da hori. Ikasteari utzi behar izan nion, familiari ekonomikoki laguntzeko. Ama gaixorik zegoen, eta azoka txikira joan behar izaten nintzen. Eskola-graduata eskuratu ondoren ikasten hasi nintzen: 2010ean Gizarte Integrazioko goi mailako graduari ekin nion, eta orain unibertsitatean nago, Gizarte Langintza ikasketak egiten. Hitz egiten entzuten nautenean, ikasketak ditudala ikustean, feminista naizela jakitean... joera *desijitotzea* izaten da. Ez omen naiz hain ijitoa. Eta horrek amorrua ematen dit. Ni ijito peto-petoa bainaiz”.

## “Ijito herriaren irudi bat eraiki da, eta gizatasuna kendu diguzue”

Bilboko Otxarkoagan dauka egoitza AMUGEK, Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarteak, eta auzo horretantxe jaio zen, 1984an, Tamara Clavería elkartearen presidenteordea. Matxismoari eta ijitoen aurkako arrazakeriari aurre egitea da haren eguneroko lana, eta ez da lan erraza. Besteak beste, antigitanismoa (zilegi bazaigu berba hori erabiltzea, euskal ordain garbirik ezean) oso erro sakonak dituen zuhaitza dela azaldu digu Claveriak.

 UNAI BREA  HODEI TORRES

### 2003an sortu zen AMUGE. Zer helbururekin?

Ijito herriaren eskubideak defendatzea eta sustatzea, eta, bereziki, emakume ijitoak ahalduak. Gure lehen erronketako bat neskak hezkuntza-sisteman sartzea izan zen. Izan ere, zubi-eskoletatik genduzen, ijitoentzat bakarrik ziren eskola haietatik. Era berean, gure herriari buruzko aurreiritzien alorrean lan egiten dugu. Hasierako erronkek oraindik dira; ume ijito guztiak eskolaratzea lortu bada ere, eskola porrota oso handia da oraindik, gizarte ez-ijitoan dagoenarekin alderatuta. Datua da eskola porrota %64koa dela, baina 2006ko datua da. Hain zuzen ere, ijitoen elkarrean eskaeretak bat gure herriaren egoerari buruzko ikerketak dira. Informazioa behar dugu proiektuak lantzeko.

### Desberdina da feminismo ijitoa?

Feminismoa feminismoa da. Ijitoon feminismoak egiten duen eta feminismo hegemonikoak egiten ez

duen borroka bakarra arrazakeriaren aurkakoa da, edo, zehazkiago, antigitanismoaren aurkakoa. Hori-ge egiten dugu hirugarren olatuko feminismoak: feminismo beltzak, islamikoak, ijitoak... Gure bizitzan nagusi den arrazakeriaren kontra borrokatzen gara, uste baitugu gizarteak gu diskriminatzeko arrazoi nagusia ijitoak izatea dela. Eta ondoren, emakumeak.

### Uste hedatua da ijito herria patriarkalagoa dela...

Hori antigitanismoa da. Gizarteak emakume ez-ijitoei esaten die gure gizonak matxistagoak direla. Eta “patriarka” figura bera ere gizarte ez-ijitoak egotzi digu. Hedabideek, zehazki. Izan ere, gure kulturaren ez da patriarkarrik existitzen. Bitartekariak daude, gizon zein emakumezkoak, baina ez dago ijito komunitate guztiari agintzen dion gizonik. Ijitoen irudia interes ideologiko eta politikoen arabera sortu da, 1499an [Espainiako] errege-erreginek gure izatea ukatzeko proiektua abian ja-



"Emakume ijitooi buruzko estereotipoetako bat da menekoak garela, eta harro gaudela gure ustezko patriarkatuaz".

rri zutenetik. Ijitoak desagerrarazteko eta esklabo bihurtzeko European egindako lehenengo saiakera izan zen. Gaur egungo gizarteak, berriz, gure gizonak matxistagoak direla dio, sistema patriarkalak gizon ez-ijitoak zeharkatuko ez balitu bezala eta zapalketa mota horretatik aparte bazeundete bezala. Baina maskulinitatea, ijito komunitatean, ikasia da. Gizon ijitoei esan zaie matxistagoak direla, eta, gainera, horixe bera dela ijito izatea. Hori oso maltzurra da. Guk AMUGEn 30 gizon ditugu euren maskulinitatea ezbaian jartzen, eta ez dute bat egiten maskulinitate hegemonikoarekin.

### **Eskola porrotari buruzko datuak orain dela hamabost urtekoak direla esan duzu. Bien bitartean egindako lanaren emaitzarik sumatzen duzue?**

Lehen Hezkuntzan ijitoen eskolaratze osoa lortu da, eta hori arrakasta da. Ez da ahaztu behar, esan dudana bezala, zubi-eskoletatik gentozela. 80ko hamarkadaren erdian debekatu zituzten. Aurrera goaz, baina oso astiro, eta goi mailako ikasketak egiten dituzten ijitoen por-

tzentajea oso-oso txikia da oraindik. Baliabide gehiago behar da, eta analisi kuantitatibo eta kualitatiborik ezean, ez da neurri espezifikorik hartzen ikasle ijitoek arrakasta izateko. Beste datu batzuek diote segregazio handia dagoela. Helburua eskola inklusiboa eta kalitatezkoa lortzea da, eta eskola segregatua guztiz aurkakoa da. Ijitoekin eta migratuekin besterik ez dituzu harremanak, eta halakoetan hezkuntza-maila txikia izan ohi da. Adibidez: Otxarkoagan aurtan arte ez dugu lortu D eredia ezartzea, 30 urteko borrokaren ondoren. Lotsagarria da 30 urte eman behar izana euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzen.

### **Zergatik gara hain arrazistak ijito herriari dagokionez?**

Eraikuntza historikoa egin delako. Ijitooi gizatasuna kendu zaigu, eta horregatik eskatzen dugu antigitanismoa delitua izatea. Romafobia ijitoenganako gorrotoa da, baina antigitanismoa kulturala da, sistemikoa. Historikoki lapurrak izatea leporatu zaigu, ofizioetan lan egitea eta abereak edukitzea debekatu zai-

gu... Interes ideologikoagatik egindako eraikuntza da, besteak kontrolatzekoa, botere-sistemari eustekoa. Horrelakoak garela esan dizuete, eta gizatasuna kendu diguzue.

### **Deigarria gertatu zait zuen bideo batean esandako zerbait: ijitoek gutxiago zaintzen duzuela zeuen burua, okerrago jaten duzuela...**

Ijitoen bizi-itxaropena 20 urte txikiagoa da, eta are txikiagoa da emakumeen kasuan, gizarte ez-ijitoan ez bezala. Baina hori esate hutsa biktimei errua botatzea da. Batetik, jakina, maila sozioekonomiko baxuak bizi-kalitatea gutxitzen du, baina bestetik, antigitanismoak estresa sortzen digu. Orain asko erabiltzen dugun kontzeptu bat da gutxiengo etnikoen estresa. Horrek gaixotu egiten gaitu: antsietatea, depresioa... Argi dago geure osasuna hobetu behar dugula, kirol gehiago egin..., baina ez dezagun ahaztu hiru ijito familiarik bik ez dituztela asea oinarriko beharrianak. Eta pandemiak dena larriagotu du. Ijito herriaren gaur egungo egoera oso kezkarria da. ●



## *Ez adiorik, eta itxi atea irtetean*

**B**ukatu da. Akabo idatzizko Beranduegi. Ez dakigu zenbat aste joan diren. Beno bai, 280 inguru, orriotan umore inteligentearen\* alde borrokan, errespetuz beti, gizatasunez eta elkartasunez beteriko batean oinarritutako bizitza partekatu baten alde. Zuengatik egiten dugu lan. Euskaratik eta euskaraz herri hau sortzen, ~~Jaurkitzen~~ Sorosen diru-laguntzei esker.

Baina, zuek ere guk bezain fuerte pentsatzen baduzue, honezkero jabetuko zineten ez direla garai onenak behetik gorako umorearentzat. Denoi azala Anasagastiren adats loriatsua baino gehiago mehetu zaigula dirudi, alegia, jendea ofenditu xamar dabilela azkenaldian. Galtzaile on batek apaltasunez onartuko luke porrota, Silveirak nola. Guk ez, ordea. Gu ez ginen erresistitzeko jai. Badakigu bai, hildakoak esnatuko gara eta Julian Iantzik ETBren Murtziako egoitzan

jarraituko du. Baina saiatu beharra daukagu, Euskal Erdia dugu irabazteko.

Guri ere lanpostu publikoak Jonani bezainbeste gustatzen zaizkigunez, indarrak metatzera goaz, gure lubaki magufo gipuzkoarzentrista libertario autokonplazientetik predikü iraultzaileak zabalduz, aireztatu gabeko gela itxi batean rosslia erre bitartean. ARGIAren azken orrialde progrea utzi eta proletargo kondizioaren biziraupena bermatzera goaz. Eta hori, maitis, bakoitzak bere erara egiten du, badakizue. Gehienek txostenak idazten dituzte, beste batzuek fraideei aldizkaria lapurtu eta abangoardia kultural gisa aldarrikatzen dute euren burua, bestea Gabi de la Maza da eta gero gu gaude.

Gure lehen pausoa izan da GKSren Altsasuko topaketetan infiltratu eta argazkiko egur pusketa lapurtzea. Guk daukagu dildo sozialistaren grial santua,

eta ez dugu itzuliko egindakoagatik Kai Nakaik, Miren Larrionek eta Kolitzak publikoki barkamena eskatu arte.

AirBnb bitartez KkinZonari alokatutako zulotik, Beranduegiren nazio idazkari-tzako kideok umorea lantzen jarraituko dugu ARGIAko gure bospasei sare sozial, blog eta podcast-irradi uhinetan. Alegia, orain arte bezala, baina papera bezalako euskarri zaharrunoa bazterrean utzita.

Hauxe duzue beraz azken pilula. Beranduegi idatzia hil da. Gora podkasta, gora memeak, *mueve el culo* y gora Zetak!

Zuzen esandakoa barkatu eta gaizki esanak kontuan hartu. Amm bai! Supporter guztiei, eskerririk!

Beranduegi, umore afrusaren pandemiaren aurkako txertoa.

Never surrender.  
CC-BY-SA (m)



92 orrialde

# Bidean

Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo

**Koldo Rabadan Izagirre**

Zoriontasunak barrutik kanporako bidea egiten du; nekez egingo gaitu kanpoko edukiak zoriontsu. Garenak egingo gaitu nor, eta garen horrek, sentitzen dugunarekin lotura zuzena du, emozioekin erlazio banaezina. Emozionatzeko gai diren eskolak behar ditugu, eta zirrara sortzeko gai diren irakasleak. Bazatoz?

**azoka.argia.eus 943 37 15 45**

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik **08:00**etatik **15:00**etara (beste ordutegiak aurrez kontsultatu).

**14€**

+ 4€  
bidalketa  
gastuak

40€-tik gorako  
erosketetan,  
bidalketa doan.



**txikitik eragiten!**



LARRUN #200



# 2022 Ilargia eta landareak

Jakoba Errekondo eta  
Antton Olariaga

Baratzea  
Fruitu baratzea  
Lore baratzea  
Basoa



14€

+ 4€  
bidalketa  
gastuak

 ARGIA BIZI BARATZEA

[argia.eus/azoka](http://argia.eus/azoka) 943 37 15 45